



Elikadura-sistemak:

gure osasunean eta
planetan dituzten
ondorioak

Elikadura burujabetzan
oinarritutako proiektu bidezko lana.
3. DBHrako curriculum-exenplifikazioa

alimentación
Landa ingurua sustatzeko eskolen sarea



Elikadura-sistemak: gure osasunean eta planetan dituzten ondorioak.

Elikadura burujabetzan oinarritutako proiektu bidezko lana. 3. DBHrako curriculum-exenplifikazioa.

Argitaratzaileak:



Calle Floridablanca 66-72, local 5
08015 Bartzelona
Tel. • 93 423 70 31 • Fax 93 423 18 95
educacio.cat@vsf.org.es
www.vsf.org.es • www.alimentación.net

Zubiria Etxea. UPV/EHU
Avda. Lehendakari Agirre. 81 • 48015 Bilbo
Tel. 94 601 70 91 • Fax: 94 601 70 40
hegoa@ehu.es

Arabako Campuseko Liburutegia. UPV/EHU
Nieves Cano, 33 • 01006 Gasteiz
Tel. • Fax: 945 01 42 87
gema_celorio@ehu.es
www.hegoa.ehu.es

Diseinua eta ilustrazioa:
Inprimaketa:
Itzultzailea:
ISBN:
Lege-gordailua:

Laura Fernández Blanco
Gráficas Uncilla
Iñigo Gallastegi
978-84-16257-42-3
BI-859-2019

Financia:



Argitalpen honek Garapenerako Nazioarteko Lankidetzako Espainiako Agentziaren (AECID) diru-laguntza izan du. Argitalpenaren edukia Hegoa Institutuaren eta VSF-Justicia Alimentaria elkartearen erantzukizun osoa da eta ez du zertan AECIDren iritzia adierazi.



Aitortu-EzKomertziala-LanEratorririkGabe 4.0 Espainia
Lan honek Creative Commons lizentzia du. Baimenduta dago lan hau kopiatzea, banatzea eta publikoki komunikatzea egilea aitortzen bada eta helburu komertzialekin erabiltzen ez bada. Ezin da lan hau aldatu, eraldatu edo lan honetatik beste bat eratorri. Lizentzia osoa: <https://creativecommons.org/licenses/by-nc-nd/4.0/deed.eu>

Argitalpen honen edozein atal inprimatu nahi baduzu PDFa eskuragarri duzu helbide honetan: <https://www.alimentacion.net/es/recursos/elikadura-sistemak-gure-osasunean-eta-planetan-dituzten-ondorioak-elikadura-burujabetzan>

ESKER ONAK

Argitalpen hau **Alimentación**, programaren parte da. Programa horren markoan egindako lan guztiak honako hauek osatutako Komisio Pedagogiko baten laguntza eta ikuskapena izan du: Carlos Puerta (Berritzegune Zentraleko zientzia aholkularia, Euskadi); Alicia García (Genero-Berdintasun aholkularia eta Desazkundeko kidea, Euskadi); Jordi Menéndez (VSF-Justicia Alimentariako kidea, Madril); Clara García-Pleyán (pedagogian eta feminismoan espezializatutako aholkularia, Catalunya); Alicia López de Munain (EHNE-Bizkaia sindikatuko hezkuntza teknikaria, Euskadi) Juanjo Celorio (unibertsitate irakasle jubilatua eta HEGOA institutuko kidea, Euskadi); Amaia del Río (HEGOA institutuko Hezkuntza teknikaria eta feminismoan aditua, Euskadi).

Era berean, dokumentu honek Ingurugela-Ceidako (Eusko Jaurlaritzaren ingurumen-hezkuntza zerbitzua) pedagogia aholkulariak diren Joseba Martínezen eta Jose Ignacio Guzmánen ekarpenak izan ditu. Horiek hasierako zirriborroa ere berrikusi zuten. Horrexegatik, haien iradokizun guztiak eskertu nahi dizkiegu.

Azkenik, eskerrak eman diegu VSF-Justicia Alimentaria Global erakundearen Alimentación programaren koordinazio taldeko kideei -Antoni Camps, Illes Balears; M^a Lidón Martrat, Catalunya; Patricia Gómez, Euskadi; eta Cristina Vicente-Almazán eta Anna Muñoz, País Valenciá). Izan ere, horiek dokumentua osatzen lagundu digute, lehenengo zirriborroari ekarpenak eginez eta lurralde desberdinetako Bigarren Hezkuntzako irakasleekin egiaztapenak eginez.

AURKIBIDEA

Koadroen aurkibidea	6
Irudien aurkibidea	7
Aurkezpena	8
Helburu orokorra	10
Curriculumaren zehaztapena	10
Zehar-konpetentziak/-elementuak	12
Oinarrizko diziplina barneko konpetentziak	13
Etapako helburuak. 3.DBH-ko edukien ikasgaikako eta autonomia-ekidegokako zehaztapenarekin bat etortzea	16
Euskadi.....	16
Illes Balears.....	19
Catalunya	22
Comunitat valenciana.....	24
Eduki multzoen eta ebaluazio-irizpideen zehaztapena ikasgaika eta autonomia-erkidegoka. 3. DBH	27
Gai-proposamena	30
Metodologia	34

Proposamenaren garapena.....	38
1. Fasea. Motibazioa.....	38
2. Fasea. Aldez aurretiko ideiak	40
3. Fasea. Ikerketa-proiektua.....	42
1. Urratsa. Arazo/ikerketa-kasu bat mugatzea	44
2. Urratsa. Informazioa biltzea eta aukeratzea	44
3. Urratsa. Informazioa sistematizatzea	50
4. Urratsa. Informazioa aztertzea.....	51
5. Urratsa. Sintesiak eta ondorioak lantzea.....	54
6. Urratsa. Komunikazioa.....	56
Ebaluazioa	60
Generoko behaketari buruzko errubrika.	
Jantz itzan/k betaurreko lilak!!!.....	61
Oinarrizko kompetentzien ebaluazio-errubrika.....	63
Talde-lanari buruzko ebaluazio-errubrika.....	66
Edukien ebaluazio-errubrika.....	69
Ikasleek ebaluatzen dute	73
Baliabideak	74
Bibliografia	79
Eranskinak	80

KOADROEN AURKIBIDEA

1. koadroa. Zehar-konpetentziak/-elementuak.....	12
2. koadroa. Oinarrizko diziplina barneko konpetentziak.....	13
3. koadroa. Euskadi	19
4. koadroa. Illes Balears	22
5. koadroa. Catalunya	23
6. koadroa. Comunitat Valenciana.....	24
7. koadroa. Eduki multzoen eta ebaluazio-irizpideen zehaztapena ikasgaika eta autonomia-erkidegoka. 3. DBH.....	27
8. koadroa. Proiektuetan oinarritutako ikaskuntza.....	36
9. koadroa. Aldez aurretiko ideien zundaketa.....	40
10. koadroa. Ikerketa-prozesua errazteko urratsak.....	43
11. koadroa. Gidoi teknikoa egiteko eskemaren adibidea	58
12. koadroa. Genero behaketari buruzko errubrika	61
13. koadroa. Oinarrizko konpetentzien ebaluazio-errubrika.....	63
14. koadroa. Talde-lanari buruzko ebaluazio-errubrika	66
15. koadroa. Edukien ebaluazio-errubrika.....	69
16. koadroa. Ikasleek ebaluatzen dute	73

IRUDIEN AURKIBIDEA

1. irudia. Ekonomia lineala.....	31
2. irudia. Ekonomia zirkularra.....	32
3. irudia. Elikadura-triangelua.....	45
4. irudia. Nola sortzen da nekazaritza-industria?.....	46
5. irudia. Elikagaien etiketatzea.....	47
6. irudia. Bloga komunikazio-baliabide bezala.....	48
7. irudia. Film laburren lanketa.....	49
8. irudia. Fitxategia.....	50
9. irudia. Idatzizko testuen azterketa.....	52
10. irudia. Ikus-entzunezko testuen azterketa.....	53

Curriculum-exenplifikazio honen bitartez Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetan genero-ikuspegia duen elikadura burujabetza txertatzeko erabilgarri diren hainbat iradokizun eman nahi diegu irakasleei, zeharkako eta diziplinarteko ikuspegi batetik.

Dokumentu zabala egin nahi izan dugu; alde batetik, lan-ildo desberdinak jorratzeko eta horren inplementazioan irakasleek erabakiak hartzeko aukera ematen duena (adibidez, beren ikasgaitik diziplinarteko proiektuari ekarpena egiteko eduki egokienak zehazteko orduan) eta, bestetik, honako hauen inguruan ikuspegi jakin bat bermatzeko behar adina argibide eta zehaztapenak ematen dituena: irakaskuntza-ikasketa prozesua, hezkuntza kritiko eta eraldatzailearekiko koherentzia¹ eta, jakina, aukeratutako gaia ulertzea, hau da, elikadura sistemak eta horiek gure osasunean eta planetan duten eragina.

Izan daitezkeen egoera, motibazio, tradizio eta testuinguru desberdinak direla eta, proposamenak egitura malgua du. Horren helburua, ikastetxe bakoitzak, eduki osoa garatu gabe, behar dituen aldaketak egiteko aukera ematea da, ohiko unitate didaktikoekin ez bezala. Hala, dokumentuak bestelako izaera du eta, hortaz, ez du irakasleen esku-hartzearen alderdi guztiak zehazten dituen ohiko egitura bat (helburu orokorrak eta espezifikoak, edukien sekuentziazioa, metodologia, denbora-plangintza, jarduerak, materialak...). Izan ere, antzeko barne antolakuntza bat badu ere, dokumentuak honako hau frogatu nahi du: posible da, Proiektuetan Oinarritutako Ikaskuntza (POI) metodologiaren bitartez, gai jakin baten inguruan, hain zuzen, genero-ikuspegidun elikadura burujabetzaren inguruan irakasgai desberdinen artean koordinatutako diziplinarteko lan bat antolatzea.

Hala ere, egitura komun bat proposatzen dugu. Ikasleek, taldeka, elikadura sistemei buruzko ikerketa bat egin beharko dute, gizarte-eta ingurumen-ikuspegi batetik eredu bidezkoagoak lortzeko proposamenak identifikatuko dituena, eta horiek bideo baten bitartez ezagutzera emango dituzte.

Dokumentu hau, beraz, Bidezko Elikadurak eta Hegoak sustatzen duten Alimentación programaren barruan eskaintzen diren baliabideetako bat da. Ekimenak merkataritzako kapitalismo neoliberallean oinarritzen den gure elikadura eredu honek (ekoizpena, banaketa, merkaturatzea eta kontsumoa) sortzen dituen ondorio sozialen, ekonomikoen eta ingurumenekoen inguruan kontzientzia kritikoa sortzeko eta hezkuntza ekintza sustatzeko helburua du.

Horrekin batera, programak kualitatiboki esanguratsuak diren eta genero-ikuspegidun elikadura burujabetzaren printzipioetan oinarritzen diren eredu alternatiboak hedatu nahi ditu. Printzipio horiek, bada, herriek eta komunitateek beren elikadura-sistemaren inguruan

1. Ikuspegi hori **Alimentación** programaren markoan garatu dugun "Hezkuntza kritikoa eta eraldatzailea Bigarren Hezkuntzako zentroetan Elikadura Burujabetza genero-ikuspegitik txertatzeko esparru teoriko-pedagogikoa" dokumentuan azaltzen dugu. Hemen: <https://www.alimentacion.net/es/recursos/hezkuntza-kritikoa-eta-eraldatzailea-bigarren-hezkuntzako-zentroetan-elikadura-burujabetza>

erabakiak hartzeko eskubidea babesten dute. Azken finean, honako hau da helburua: pertsona guztiek elikadura osasungarria eta iraunkorra eta bizi-baldintza duinak izatea, gizarte bidezkoagoak eta bestelako ekoizpen eta kontsumo ereduak sortzeko bidean aurrera eginez. Eredu horiek, bada, planetan duten eragina minimizatu eta ekosistemak leheneratzen lagundu beharko dute.

Alimentación programa lau lurralde hauetan garatzen ari da: Illes Balears, Comunitat Valenciana, Catalunya eta Euskadi. Hori dela eta, exenplifikazio honek erkidego horien curriculum-dekretuak kontuan hartu ditu edukiak eta konpetentziak antolatzeko. Halaber, programaren hainbat partaidek egin edo inplementatu dituzten unitate didaktikoak kontuan hartu ditugu; izan ere, exenplifikazio hau, bestelako eredu bat barik, prozesuaren fase desberdinetan horiek txertatzen eta erreferentziatzen hartzen dituen proposamen bat dela ulertzea nahi dugu. Nolanahi ere, ikusiko dugunez, **Alimentación** sareko lurralde eta eragile horietatik kanpo ere antzekotasunak aurkitzen ditugu eta, hortaz, hor ere curriculum-exenplifikazio hau erabiltzea zentzua du.

HELBURU OROKORRA

Exenplifikazio honen bitartez lan-eredu posible bat aurkezten dugu. Hori irakasleek erabakiak hartzeko eta lan-ildo desberdinak irekitzeko behar adina irekia da baina eredu artikulatzen duten zenbait elementu zentral ditu. Hala, 3. DBHko lehen hiruhilekoan garatzeko proposamena da, diziplinarteko izaera duena (Biologia eta Geologia, Gorputz Hezkuntza, Gaztelania eta Literatura eta Geografia eta Historia). Proposamenaren ardatz tematikoa, bada, elikaduraren arazoa da eta Proiektuetan Oinarritutako Ikaskuntza du lan-metodologia. Logikoa denez, proposamen honek ez du beste irakasgai batzuek ere parte hartzeko eta ardatz tematiko hori lantzeko aukera baztertzen.

CURRICULUMAREN ZEHAZTAPENA

Atal honetan, dekretuetan zehaztutako kompetentzien, helburuen, irakasgaien, eduki-multzoen eta ebaluazio-irizpideen artean sor daitezkeen erlazioak aurkeztuko ditugu. **Alimentación** programan parte hartzen duten lau lurraldeetan, (Catalunya, Euskadi, Comunitat Valenciana eta Illes Balears) dekretu horiek etapa bakoitza arautzen dute.

Kasu guztietan, hautespen bat egin dugu eta, genero-ikuspegidun elikadura burujabetzak espero diren ikaspenei egindako ekarpena bistaratzeko helburuz, lantzen ari garen gai honetara moldatu ditugu ebaluazio-irizpideak: elikadura-sistemak eta horiek gure osasunean eta planetan dituzten ondorioak.

Jakina, lau irakasgai horiek aukeratu izanak ez du esan nahi, inondik inora, horiek gaia ulertzen eta aipatutako helburuak eta kompetentziak lortzen lagun dezaketen bakarrak direnik. Aitzitik, oso interesgarria litzateke beste ikasgai batzuek ere diziplinarteko proposamen honetan parte hartzea, testu honetan aurkezten ditugun iradokizunak kontuan hartuz.

Halaber, irakasleek erabaki beharko dituzte landuko diren eduki zehatzak eta garatuko eta ebaluatuko diren helburuak eta kompetentziak.

Bestalde, honako hau azpimarratu nahi dugu: proposamen hau exenplifikazio bat da, hau da, izan daitezkeen gida guztien arteko bat.

Jarraian, aurrerago ikusiko ditugun koadroak azalduko ditugu, landu dugun curriculum-zehaztapen horren logika laburbiltzen dutenak.

▶ **1. koadroa.** *Zehar-kompetentziak/-elementuak.* Koadro horretan, lau lurraldeetako bakoitzak item horiei emandako izena biltzen dugu. Autonomia-erkidego batzuetan, zeharkako kompetentziak eta elementuak bereizten dira; hala ere, egitura eta, horren barruan, elementu komunak irudikatzen dituen sintesia aurkeztea erabaki dugu.

▶ **2. koadroa.** *Oinarrizko diziplina barneko kompetentziak.* Kasu honetan, oinarrizko diziplina barneko kompetentziak biltzen ditugu (izen aldaketa txikiekin lau lurraldeetako dekretuetan ageri direnak) eta exenplifikazio honetarako egokiak diren ebaluazio-irizpideak seinatzen ditugu, beren formulazioa aukeratutako gaira moldatuz.

▶ **3tik 6ra arteko koadroak.** *Etapako helburuak. 3.DBHko edukien ikasgaikako eta autonomia-erkidegokako zehaztapenarekin bat etortzea.* Exenplifikazioak hartzen dituen lau lurraldeetako bakoitzarentzat eta 3. DBHko lau irakasgaietako bakoitzarentzat (Biologia eta Geologia, Gorpuzt Hezkuntza, Gaztelania eta literatura eta Geografia eta Historia), ikasgaikako etapako helburuen, eduki-multzoen eta ebaluazio-irizpideen ateko elkarrekikotasuna zehazten da.

▶ **7. koadroa.** *Eduki multzoen eta ebaluazio-irizpideen zehaztapena ikasgaika eta autonomia-erkidegoka.* 3. DBH. Hau da, 3. DBHko lau irakasgaietako bakoitzerako lurraldeka zehaztutako eduki-multzoen laburpen koadroa.

1. koadroa. Zehar-kompetentziak/-elementuak

	CATALUNYA	EUSKADI	COMUNITAT VALENCIANA	ILLES BALEARS
Komunikaziorako kompetentziak	Hizkuntza-komunikaziorako eta ikus-entzunezko kompetentzia Arterako eta kulturarako kompetentzia	Hitzezko eta hitzik gabeko komunikaziorako eta komunikazio digitalerako kompetentzia	Irakurketaren sustapena Irakurritzko ulermena Ahozko eta idatzizko adierazpena Ikus-entzunezko komunikazioa	Irakurritzko ulermena Ahozko eta idatzizko adierazpena Ikus-entzunezko komunikazioa
Kompetentzia metodologikoak	Informazioaren lanketa eta kompetentzia digitala Kompetentzia matematikoa Ikasten ikasteko kompetentzia	Ikasten eta pentsatzen ikasteko kompetentzia	Informazio- eta Komunikazio-Teknologiak	Informazio- eta Komunikazio-Teknologiak
Kompetentzia pertsonalak	Autonomiarako kompetentzia	Ekimenerako eta espiritu ekintzaileerako kompetentzia.	Ekintzailetza	Ekintzailetza
Elkarbizitzan eta munduan bizitzean oinarritutako kompetentzia espezifikoak	Ingurune fisikoaren ezagutzarako eta interakziorako kompetentzia Kompetentzia sozial eta zibikoa	Norbera izaten ikasteko kompetentzia Elkarbizitzarako kompetentzia	Heziketa zibikoa eta konstituzionala	Heziketa zibikoa eta konstituzionala
ZEHAR-KOMPETENTZIEI DEFINIZIOA				
	Hitzezko eta hitzik gabeko komunikaziorako eta komunikaziorako kompetentzia. Hitzezko eta hitzik gabeko komunikazioa eta komunikazio digitala modu osagarrian erabiltzea da, komunikazio egokiak eta eraginkorrak egiteko egoera pertsonal, sozial eta akademikoetan.	Ikasten eta pentsatzen ikasteko kompetentzia. Ikasteko eta lan egiteko ohiturak, ikasteko estrategiak eta pentsamendu zorrotza izatea da, ikasitakoa erabili eta beste testuinguru eta egoera batzuetara transferitzea, norberaren ikaskuntza autonomiaz antolatzeke.	Ekimenerako eta espiritu ekintzaileerako kompetentzia. Ekimenez jardutea eta prozesu ekintzailea ausart eta eraginkor kudeatzea da egoera eta testuinguru pertsonal, sozial, akademiko eta lanekoetan, ideiak ekintza bihur daitezen.	Ekimenerako eta espiritu ekintzaileerako kompetentzia. Ekimenez jardutea eta prozesu ekintzailea ausart eta eraginkor kudeatzea da egoera eta testuinguru pertsonal, sozial, akademiko eta lanekoetan, ideiak ekintza bihur daitezen.
	Elkarbizitzarako kompetentzia. Pertsonen arteko, taldeko eta komunitateko egoeretan elkarrekotasun-irizpideak erabiltz parte hartzea da, gainerako pertsonen aitorzuz nor bere buruari aitortzen dizkion eskubideak eta betebeharrak, eta horrela, ekarpen bat egitea norberaren eta guztien onari.	Norbera izaten ikasteko kompetentzia. Bizitzako hainbat egoera eta esparrutan norberari sortzen zaizkion sentimenduez eta pentsamenduez hausnartzea eta norberak egiten dituen ekintzez gogoeta egitea, eta, horien gainean egiten den balioespenari erreparatuta, haiek sendotzea edo doitzea, finean, pertsonaren autorrealizaziorako bidea egitea bere dimentsio guztietan, etengabeko hobekuntzaren bidez.	Norbera izaten ikasteko kompetentzia. Bizitzako hainbat egoera eta esparrutan norberari sortzen zaizkion sentimenduez eta pentsamenduez hausnartzea eta norberak egiten dituen ekintzez gogoeta egitea, eta, horien gainean egiten den balioespenari erreparatuta, haiek sendotzea edo doitzea, finean, pertsonaren autorrealizaziorako bidea egitea bere dimentsio guztietan, etengabeko hobekuntzaren bidez.	Norbera izaten ikasteko kompetentzia. Bizitzako hainbat egoera eta esparrutan norberari sortzen zaizkion sentimenduez eta pentsamenduez hausnartzea eta norberak egiten dituen ekintzez gogoeta egitea, eta, horien gainean egiten den balioespenari erreparatuta, haiek sendotzea edo doitzea, finean, pertsonaren autorrealizaziorako bidea egitea bere dimentsio guztietan, etengabeko hobekuntzaren bidez.

Iturria: Egilea bera, lurralde bakoitzeko curriculum-dekretuetan oinarrituz. Zehar-kompetentzien definizioa Heziberri 2020 Planetik hartu dira (Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Saila).

2. koadroa. Oinarrizko diziplina barneko konpetentziak

LAU LURRALDEETAN DAUDENAK	EBALUAZIO-IRIZPIDEAK GENERO-IKUSPEGIDUN ELIKADURA BURUJABETZAN IKUSPEGIAREKIN LOTZEA
<p>Hizkuntza-komunikaziorako konpetentzia.</p> <p>Hizkuntza erabiltzeko, ideiak adierazteko eta beste pertsona batzuekin hitzez edo idatziz komunikatzeko gaitasuna da.</p>	<p>Elikaduraren gaia diziplinarteko ikuspegi konplexu baten bitartez lantzen duten testuak formatu desberdinetan ulertzea (ahozkoak, idatzizkoak, ikus-entzunezkoak...).</p> <p>Sen kritikoa eta etikoa garatzea, elikadura burujabetza honela ulertzeko: herriek eta pertsonak elikadura osasungarria, iraunkorra, tokikoa eta kulturalki egokia izateko eskubidea.</p> <p>Elikadura burujabetzari buruzko lanaren inguruan komunikazio eraginkorra eta konstruktiboa ezartzea honako hauekin:</p> <ul style="list-style-type: none"> i. hezkuntza-komunitatea bera -familiak, eskola kontseilua...-; ii. inguruko gizarte eragileak -ekoizleak, tokiko merkatuta, denda txikiak, kontsumo taldeak...-; eta iii. erakundeak -udala, kontseilaritzak...-. Helburua landutako proiektuetan sortutako proposamenak partekatzea (ekoizpen eta kontsumo eredu alternatiboak elkarrekin eraikitzearen inguruan) eta ekoizpen eta kontsumo eredu alternatiboak elkarrekin sendotzea da. <p>Modu kritiko eta eraginkor batean komunikatzen ikastea; ideiak sortuz, ezagutza egituratuz eta diskurtsoari eta norberaren ekintzei eta eginkizunei koherentzia eta kohesioa emanez.</p> <p>Elikagaien industriaren narratiba eta diskurtso publizitarioak kritikoki aztertzea, publizitate iruzurtia eta diskriminaziozko estereotipoak (gizarte-klasea, generoa...) identifikatuz.</p> <p>Pertsonen eta planetaren osasuna zaintzen duten elikagaien kalitatean oinarritutako narratiba alternatiboak sortzea.</p> <p>Formari zein edukiei dagokienez, komunikazio ez sexistako estrategiak garatzea, ikasleengan hartzaile pasiboak izatetik informazio kritikoa eta eraldatzaile ekoizleak izatera igarotzeko gaitasuna garatuz.</p>
<p>Konpetentzia matematikoa eta zientzia eta teknologiarako oinarrizko konpetentziak.</p> <p>Lehenengo eguneroko arazoak konpontzeko arrazoibide matematikoa aplikatzeko gaitasuna da; zientziarako konpetentzia gure inguruko errealitatea azaltzeko ezagutza eta metodologia zientifikoak erabiltzeko gaitasuna da; eta teknologiarako konpetentzia gizakion nahi eta premiei erantzuna emateko ezagutza eta metodo horiek aplikatzeko gaitasuna da.</p>	<p>Arrazoibide matematikoa aplikatzea elikaduraren arazoaren inguruko kausa-ondorio sekuentziak zehazteko, eta izaki bizidunen eta planetaren osasuna kaltetzen duten sistemak zeintzuk diren eta sistema alternatibo, iraunkor eta ekologikoak zeintzuk izan daitezkeen identifikatzeko.</p> <p>Irudikapen eta objektu matematikoak (taulak, grafikoak, formulak, estatistikak...) behar bezala erabiltzea, elikaduraren arazoari eta genero-ikuspegidun elikadura burujabetza alternatibei lotutako egoerak ulertzen eta interpretatzen lagundu dezaketen informazioa edo datuak sintetizatuz.</p> <p>Elikaduraren arloko aurrerapen zientifikoaren eta teknologikoen inguruan ikuspegi kritiko bat garatzea, eredu agroindustriaren eta agroekologikoen artean erabaki arrazoituak hartu ahal izateko.</p> <p>Balio eta jarrera egokiak hartzea, bizitza fisiko/mental osasungarria lortzeko eta ingurune iraunkorra, bidezkoa eta ekitatiboa finkatzen laguntzeko.</p> <p>Zientziaren eta teknologiaren neutraltasuna zalantzan jartzen duen ikuspegi kritikoa garatzea eta generoko joerak identifikatzea.</p>

LAU LURRALDEETAN DAUDENAK	EBALUAZIO-IRIZPIDEAK GENERO-IKUSPEGIDUN ELIKADURA BURUJABETZAN IKUSPEGIAREKIN LOTZEA
<p>Konpetentzia digitala. IKTak segurtasunez eta kritikoki da, informazioa lortzeko, aztertzeko, sortzeko eta partekatzeko..</p>	<p>Alfabetatze eta hezkuntza digitala. Interneteko eta sare sozialetako informazio hartzaile akritikoak izatetik eduki digitalen ekoizle kritikoak, informatuak eta arduratsuak izatera pasatzeko beharrezkoak diren ezagutza, jarrerak eta gaitasunak garatzea. Interneteko eduki digitalen artean informazio garrantzitsua identifikatzen lagunduko duten irizpideak zehaztea eta, zentzu horretan, interneten ikasgaiei buruzko bilaketa doituak egiten ikastea. Genero-ikuspegidun elikadura burujabetzaren inguruko eduki digitalak sortzea, elkarrekin egindako proiektu bidezko lanaren emaitzak biltzen dituztenak. Gailu digitalak mezu kritikoak formatu desberdinetan hedatzeko eta komunikatzeko tresna bezala erabiltzea (testuak, blogak, ikus-entzunezkoak...).</p>
<p>Ikasten ikasteko konpetentzia. Konpetentzia nagusietako bat da eta, helburu bat lortze aldera, ikasleak ikasketa hasteko eta mantentzeko, bere eginkizunak eta denbora antolatzeko eta banaka zein elkarrekin lan egiteko gaitasuna garatzea dakar..</p>	<p>Ahozko, idatzizko, ikus-entzunezko adierazpena eta komunikazioa, eta adierazpen eta komunikazio digitalerako gaitasunak hobetzeko gogoia izatea, mahai-inguruetan eta eztabaidetan argudio sendoak erabili ahal izateko. Beste iritzi batzuk entzuteko eta nor bere ikuspuntua aldatzeko irekiera izateko gaitasunak sortzea, demokrazian sakontzeko ezinbestekoak direnak. Nork bere buruari galderak egiteko, erantzun anitzak identifikatzeko eta balioesteko eta erabaki etikoak, arrazoituak eta kritikoak hartzeko estrategiak garatzeko jakin-mina izatea. Honetaz ohartzea: nola erlazionatzen dira ikaspen berriak aurretiko ezagutzarekin (hori zabalduz eta hobetuz); eta nola jartzen dituzte zalantzan eta, kasuaren arabera, gainditzen laguntzen dute landutako gaien inguruan aurretik zeuden ideiak. Proiektu bidezko lanak sortzen duen lankidetzaren eremua honetarako aprobetxatzea: a) parte hartzeko, besteekiko harremanerako eta komunikazio eraginkorrerako gaitasunen garapenean norberaren aukerak esploratzeko; eta b) taldekideek erabilitako ikasketa-estrategia desberdinak behatzeko eta horietatik ikasteko, batez ere genero-ikuspegidun elikadura burujabetzari buruzko ikerketa-lanetan (informazioa biltzea, iturriak egiaztatzea, analisia, elkarrizketak, bisitak; analisi-, sintesi- eta komunikazio-gaitasuna).</p>
<p>Konpetentzia motorra. Modu autonomoan, kritikoa, sormenezkoa eta adierazgarria, arlo motorreko hainbat egoerari aurre egitea; bizimodu osasuntsu baten bitartez, ongizate integrala lortzen laguntzen duten jardura fisiko eta kirol praktika ohiturak hartzeko.</p>	<p>Osasun integrala zaintzeko eta hobetzeko eta bizitza orekatu bat izateko ezinbesteko elementu gisa, egunerokoan jardura fisikoa berariaz txertatzea -horrek duen edozein adierazpenen bitartez-, horri lotutako barruko eta kanpoko alderdi guztiak identifikatuz.</p>

LAU LURRALDEETAN DAUDENAK	EBALUAZIO-IRIZPIDEAK GENERO-IKUSPEGIDUN ELIKADURA BURUJABETZAN IKUSPEGIAREKIN LOTZEA
<p>Konpetentzia sozial eta zibikoak. Beste pertsona batzuekin harremanak izateko eta bizitza sozial eta zibikoan modu aktibo eta demokratikoan parte hartzeko gaitasunak dira.</p>	<p>Elikaduraren arazoa ikuspegi ekosistemiko batetik lantzea, tokiko-globaleko ikuspegi bat erabiliz eta gizarte eta ingurumen justiziaren printzipioetan oinarrituz.</p> <p>Nekazaritza industriaren ekoizpen ereduak gizartean eta ingurumenean sortzen dituen ondorioak eta honako hauekin duen erlazioa identifikatzea: bidegabekeriak handitzea, desberdintasunak erreproduzitzea eta bizi dugun krisi ekologikoa larriagotzea.</p> <p>Genero-ikuspegidun elikadura burujabetzaren printzipioak ezagutzea eta horrek gizartea aldatzeko duen ahalmen politiko eraldatzailea kritikoki argudiatzea.</p> <p>Genero-ikuspegia txertatzea, proiektu bidezko lanak jorratzen dituen ekoizpen ereduak emakumei eta gizonei egokitzen dizkieten rolak eta emakumeengan eta gizonengan dituzten ondorioak aztertzea.</p> <p>Gizarte- eta ingurumen-justizia irizpideetan oinarritutako erabakiak hartzen lagunduko duen sen etikoa garatzea.</p> <p>Bizitzaren iraunkortasuna sustatzearen, herritarrek onar ditzaketen aldaketa indibidualak identifikatzea, kontsumo-, besteekiko harreman- eta elikadura-ereduak aldatzea ekarriko dituztena, besteak beste.</p> <p>Hainbat eremutan (familian, eskolan, udalean...) sentsibilizazio ekintzetan eta herritar kritikokoak prestatzeko ekintzetan esku-hartze kolektiboa sustatzen duten ekimenak proposatzea.</p>
<p>Ekimen-sena eta espiritu ekintzailea. Ideiak ekintza bilakatzeko behar diren gaitasunak dira, hala nola, sormena edo arriskuak hartzeko eta proiektuak planifikatzeko eta kudeatzeko gaitasunak.</p>	<p>Genero-ikuspegidun elikadura burujabetzari buruzko lanarekin lotutako arazo bat aukeratzea eta horretan sakontzea, banaka edo elkarrekin hartzeko konponbideak topatze aldera</p> <p>Ideiak ekintza bihurtzea, sormenaren bitartez, modu errealistan eta testuinguruaren beharretara doitzuz</p> <p>Eskola proiektuetan ekonomia sozial eta solidarioaren printzipioetan oinarritutako negozio-ereduak sortzea.</p> <p>Elikaduraren arazoaren inguruan egin daitezkeen proiektuak imajinatzea, diseinatzea eta burutzea; kontsumo arduratsu eta bidezko baten aldeko sentsibilizazioko, kontzientzia hartzeko eta jarrera aldatzeko konpromisoak/ ekintzak ekarriko dituztenak.</p> <p>Hobekuntzak identifikatzen lagunduko duen jarraipen sistema bat ezartzea, proiektua bide onetik joatea eta beste ekimen batzuetan aplikatu ahal izango diren ikaspenak ateratzen lagunduko duten ebaluazio-irizpideak bermatze aldera.</p>
<p>Kontzientzia eta kultura adierazpenak. Musikaren, arte plastikoaren eta eszenikoaren edota literaturaren bitarteko adierazpenaren garrantzia aintzat hartzeko gaitasunari dagozkio.</p>	<p>Taldean lan egitea, egingo diren bideoklipak ardaztuko dituen narrazio-gidoiaren ideia nagusiak lankidetzaren bitartez zehazteko -agroekologiaren, bidezko kontsumo arduratsuen eta bizitzaren iraunkortasunaren alde-.</p> <p>Genero-ikuspegia modu esplizituan bistaratzea.</p> <p>Kapital eta botere metaketan barik, pertsonen ongizatean oinarritzen diren elikaduraren eta bizitzaren mundu-ikuskerara ez eurozentrikoetan oinarritutako produktuak sortzea.</p> <p>Bideoaren gidoi tekniko eta narratiboa taldean sortzea.</p> <p>Ikus-entzunezko produktu bat sortzea; elikadura osasungarri, ekologiko eta kulturalki egokiarekiko konpromisoa erakusten duten emozioak, bizipenak eta ideiak adierazteko, irudikatze eta komunikatzeko modu bezala.</p>

Iturria: Egilea bera.

3. koadroa. Euskadi			
IKASGAIA	ETAPAKO HELBURUAK	EDUKI-MULTZOAK	EBALUAZIO IRIZPIDEAK
Biologia eta Geologia	<p>1. Gizakiaren organismoari buruzko ezagutza zientifikoa erabiltzea, norberaren gorputzaren funtzionamendua nahiz osasuntsu egotea ahalbidetzen duten baldintzak azalduz, horren bidez osasuna zaintzeko ohiturak garatzeko eta norberaren nahiz komunitatearen ongizatea hobetzeko.</p> <p>2. Ekosistemen funtzionamenduari buruzko ezagutza zientifikoa erabiltzea, haietan gertatzen diren interakzioak azalduz, eta ekosistemen oreka eta hura aldatzen duten faktoreak deskribatuz, horren bidez natura balioesteko eta kudeatzeko nahiz hartaz gozatzeko, zientziak eta teknologiak gizartearekin eta ingurumenarekin dituzten interakzioak ikuspegi kritikoaz aztertzeko, eta garapen iraunkorraren alde modu aktiboan eta arduratsuan parte hartzeko.</p> <p>4. Gai zientifikoei buruzko informazioa lortzea zenbait iturritatik, barnean hartuta informazioaren teknologiak, kontuan hartuta gai zientifikoei buruzko lanak funtsatzeko eta bideratzeko baliagarritasuna, eta gai horiei buruz norik bere jarrerak hartzea, funtsatuta eta ikuspegi kritikoaz.</p> <p>5. Zientziei buruzko informazioa duten mezuak modu aktiboan eta kritikoan interpretatzea, eta mezu zientifikoak sortzea, ahozko nahiz idatzizko hizkuntza zuzen erabiliz, bai eta beste notazio- eta adierazpen-sistema batzuk ere, zehaztasunez komunikatu ahal izateko eta zientziaren esparruan azalpenak eta argudioak eman ahal izateko.</p>	<p>Eduki komunak (B1).</p>	<p>B1.1 Gidoi bat oinarri hartuta, ikerketak (...) egitea lan zientifikoaren berezko metodologia eta estrategiak aplikatuz, eta haien garapena balioestea eta emaitzak interpretatzea.</p> <p>B1.3 Bere iritzia eratzeko, adierazpenak zehaztasunez egitea, eta problema-egoerei buruzko argudioak ematea, informazio zientifikoa bilatuz, hautatuz eta interpretatuz.</p>
	<p>B3.7 Osasun eta gaixotasun kontzeptuen esanahiak oinarri hartuta, haiek baldintzatzen dituzten faktoreak identifikatzea</p> <p>B3.8 Ohitura eta bizi-estilo osasungarriak izatearen garrantzia balioestea, nutrizioan parte hartzen duten organoek, aparatuek eta sistemek behar bezala funtziona dezaten, eta adibideen eta egoera praktikoek bidez azaltzea.</p> <p>B6.14 Inguruko ekosistema bati buruzko ikerketa soilak egitea, osagaiak eta desorekak eragiten dituzten faktoreak identifikatuz, eta aintzat hartzea ekosistemak babestearen eta kontserbatzearen garrantzia.</p>	<p>Pertsonak eta osasuna (B3). Ikerketa-proiektua(B6).</p>	

3tik 6ra arteko koadroak. Etapako helburuak. 3.DBH-ko edukien ikasgaikako eta autonomia-ekidegokako zehaztapenarekin bat etortzea

3. koadroa. Euskadi				
IKASGAIA	ETAPAKO HELBURUAK	EDUKI-MULTZOAK	EBALUAZIO IRIZPIDEAK	
Gaztelania eta literatura	<ol style="list-style-type: none"> Hizkuntzaren zenbait erabilera-eremutan sortutako ahozko, idatziko eta ikus-entzunezko diskurtsoak ulertzea, bai eta haien edukia nahiz forma modu kritikoan interpretatzea ere, zenbait motatako komunikazio-egoerei aurre egiteko. Bai ahoz eta bai idatziz modu txukun, koherente eta zuzenean espresatzea eta interaktuatzea, eta horretan, errespetua, kooperazioa eta espiritu kritikoa hartzea oinarri, zenbait komunikazio-premiari modu eraginkorrean erantzuteko. Norberak hautatutako idatziko, ahozko nahiz ikus-entzunezko literatura-testu erreferentzialez gozatzea, norberaren esperientziari zentzua emateko, mundua ulertzeko eta sentsibilitate estetikoan aurrera egiteko. IKTak modu kritiko eta autonomoan erabiltzea, informazioa eskuratu, komunikatu eta lankidetzan jarduteko. 	<p>Ahozko komunikazioa: hitz egitea, entzutea eta elkarrekin solasean jardutea (B2).</p>	<p>B2.1 Hainbat euskarritan dauden ahozko testuak ulertzea, zentzu orokorraz ohartuz eta informazio egokia hautatuz.</p> <p>B2.4 Gizarteko ahozko harremanetan parte hartzea.</p>	
		<ol style="list-style-type: none"> Jarduera fisiko eta kirol-jarduera osasungarria zehazten duten alderdi guztiak identifikatzea eta aztertzea, modu kontzientean balioesteko ongizatea lortzeko dakartzan onurak, alderdi guztietan, eta gizarteak osasunari, jarduera fisikoari, kirol-jarduerari, gorputzaren tratamenduari eta gorputz-irudiari buruz duen ikuspegia jarrera kritikoz aztertzea. 	<p>Idatziko komunikazioa: irakurtzea eta idaztea (B3).</p>	<p>B3.2 Hainbat euskarritan dauden idatziko testuak ulertzea, zentzu orokorraz ohartuz eta informaziorik eta daturik garrantzitsuenak hautatuz.</p> <p>B3.3 Azalpen- eta argudio-testu eraginkorrak egitea, argiak eta egituratuak.</p>
Gorputz-Hezkuntza				

3. koadiroa, Euskadi			
IKASGAIA	ETAPAKO HELBURUAK	EDUKI-MULTZOAK	EBALUAZIO IRIZPIDEAK
Geografia eta Historia	<p>8. Gaur egungo gizartearen arazoak zein diren jakitea, haien jatorri historiko-sozialak aztertuz, eta errealitateak eta egoerak ebaluatuz. Horren guztiaren helburua da haiekiko iritzi pertsonal kritikoa eta arrazoitua izatea, eta ekintza alternatibo eraginkorrak sustatzea eta abian jartzea, zenbait eskatatan, pertsonen arteko eta gizarte-taldeen arteko harremanak hobetzeko eta baliabide naturalak arduraz erabiltzeko.</p> <p>9. Gizarte-fenomenoak zuzentzen dituzten prozesuak eta mekanismoak zein diren jakitea, gertaera sozialen, politikoen, ekonomikoen eta kulturalen arteko loturak aztertuz. Jakintza hori gaur egungo gizartearen bilakaera azaltzen duten kausak ugariak direla ulertzeko oinarria izango da, baita Historiaren ikuspegi arrazoitua eta kritikoa edukitzeko ere, eta hori esker herritarrok gizartea hobetzeko moduan egongo gara.</p> <p>11. Talde-lanak egitea eta eztabaida eta debateetan parte hartzea jarrera konstruktiboa, irekia, arduratsua, kritikoa eta tolerantzia izanda eta iritziak eta proposamenak behar bezala arrazoituta. Orobat, desadostasunak eta elkarizketa gizakien arteko gatazkak eta gatazka sozialak konpontzeko bidea dela ikusi beharko dute, eta taldeko lan-teknikak landuko dira, bai sormenezko lorpen komun bat izateko, baita pertsonaren eta taldearen interakzio nagusi den gizartearen egoki txertatzeko ere.</p> <p>12. Informazio geografikoa eta historikoa lortzea. Horretarako, ahozko informazioa, informazio grafikoa, ikono bidezkoa, estatistikoa eta kartografikoa planifikatu, aukeratu eta erlazionatu behar dute (informazioa hainbat iturritatik lortuko dute, komunikabideak eta informazioaren eta komunikazioaren teknologiak barne). Informazio hori laburbildu egingo dute, eta lortutako emaitzak besteii modu antolatuan eta utergarrian azaltzen jakin beharko dute.</p>	<p>Giza espazioa. Antolaketa ekonomikoa, soziala eta politikoa (B2).</p>	<p>B2.1 Ekonomia-eragile eta -erakunde nagusiak ezagutzeko eta gero eta mendekotasun handiagoko ekonomian elkarrekiko zer eginkizun duten jakitea, eta jakintza hori hurbileko zenbait egoera ekonomiko aztertzeke eta balioesteko erabiltzea.</p> <p>B2.3 Euskal Herriko, Espainiako eta Europako nekazaritzaren ezaugarri batzuk identifikatzea eta gaur egungo arazo batzuk adieraztea.</p> <p>B2.12 Jarduera ekonomikoen eta norbanakoen eta taldeen portaeren ingurumen-eraginak ingurune hurbileko kasu baten bidez deskribatzea, ongi bereiztea zer jarduera diren garapen jasangarriaren aldekoak eta zer jarduerak eragozten duten hura.</p>

Iturria: Egilea bera, Heziberri 2020 Planaren Oinarrizko Hezkuntza Curriculumean oinarrituz. Euskal Autonomia Erkidegoa, 2015. Hemen: http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.eus/contenidos/informacion/heziberri_2020/eu_2_proyec/adjuntos/OH_curriculum_osoa.pdf

4. koadroa. Illes Balears			
IKASGAIA	ETAPAKO HELBURUAK	EDUKI-MULTZOAK	EBALUAZIO-IRIZPIDEAK
Biologia eta Geologia	<p>2. Arazoak konpontzeko estrategia zientifikoak erabiltzea, hala nola, aurkeztutako arazoen interesak eztabaidatzea, hipotesiak formulatzea, konpontzeko estrategiak eta diseinu esperimentaleko estrategiak lantzea, egindako ikerketaren aplikazioak eta ondorioak kontuan hartzea eta koherentzia orokorra ikertzea.</p> <p>4. Hainbat iturri erabiliz, iKTak barne, zientzia-gaiei buruzko informazioa lortzea eta horien edukia baloratzeko, gai horien inguruko lanei oinarri ematearren eta horiek bideratzearen.</p> <p>5. Banaka edo taldean zientzia-gaiek aztertze aldera, biologia- eta geologia-egagutzan oinarritutako jarrera kritikoak hartzea.</p> <p>6. Osasun pertsonala eta komunitarioa sustatzeko lagungarriak diren jarrerak eta ohiturak garatzea eta, elikadurari, kontsumoari, droga-menpekotasunari eta sexualitateari dagokienez, gaur egungo gizartearen arriskuei aurre egiten lagunduko duten estrategiak ematea.</p> <p>7. Biologia eta geologia ezagutzak gizakion premiak asetzeko eta munduko arazoei buruzko erabakietan parte hartzeko duten garrantzia ulertzea.</p> <p>8. Zientzia eta teknologiaren eta gizarte eta ingurumenaren arteko interakzioak ezagutzea eta baloratzeko, baita iraunkortasunerako bidean aurrera egiteko konponbide egokiak bilatu eta aplikatu beharra ere. Horretarako, gaurko gizarteak dituen arazoei aurrea berezia eman beharko diegu, batez ere Balear Uharteetan eragin zuzena duten horiei.</p>	<p>Metodologia zientifikoak (B1).</p>	<p>B1.2 Informazio zientifikoak bilatzea, aukeratzea eta interpretatzea eta informazio hori berezko iritzia sortzeko, hori modu zehaztean adierazteko eta ingurumenarekin eta osasunarekin lotutako arazoei buruz argudiatzeko erabiltzea.</p>

IKASGAIA	ETAPAKO HELBURUAK	EDUKI-MULTZOAK	EBALUAZIO-IRIZPIDEAK
<p>Gaztelania eta literatura</p>	<p>4. Autonomiaz eta espiritutik kritiko gizarte komunikabideak eta Informazio eta Komunikazio Teknologiak erabiltzea. Informazio, iritzi eta sentimendu desberdinak hainbat formatutan jasotzeko, interpretatzeko, lantzeko eta aurkezteko.</p> <p>5. Ahoz edo idatziz testuinguru akademiko, sozial eta kulturaletan, modu koherente eta egokian, elkarriragitea, adieraztea eta ulertzea eta begirunezko eta tankidetzazko jarrerak bat hartzea.</p> <p>13. Informazioa eskuratzearen, aukeratzearen eta transmititzearen eta lan akademiko zehatzak, argiak eta koherenteak sortzearen, inprimatutako iturriak zein iturri digitalak erabiltzea.</p> <p>16. Komunikazio-egoera bakoitzari dagokion hizkuntza-erregistroa erabiltzearen garrantzia aintzat hartzea..</p>	<p>Ahozko komunikazioa. Entzutea eta hitz egitea (B1).</p>	<p>B1.1 Hainbat eremuko -pertsoneko, akademiko/ eskolako eta sozietate- ahozko testuak ulertzea.</p> <p>B1.6 Jendaurrean hitz egiten ikastea, egoera formal zein informaletan, banaka zein taldean.</p>
		<p>Idatzizko komunikazioa. Irakurtzea eta idaztea (B2).</p>	<p>B2.3 Literatura testuak edo lanak irakurtzean jarriera kritikoa erakustea, adostasun edo desadostasun jarriera identifikatzeko aukera ematen duen irakurketa burutsu baten bitartez, betiere besteentz iritzia errespetatuz.</p>
<p>Gorputz-Hezkuntza</p>	<p>1.. Jarduera fisikoa maiz eta sistematikoki praktikatzeko osasun indibidual eta kolektiboan, garapen pertsonalean eta bizi-kalitatean dituen onurak, arriskuak eta kontraesanak ezagutzeko eta aintzat hartzea.</p> <p>2.. Fenomeno soziokulturaltzat hartzen diren gorputz- eta osasun-ereduen eta gorputz- eta kirol-adierazpenen manifestazioen aurrean, jarrera kritikoa erakustea eta ohitura osasungarriak ezartzea.</p>	<p>Osasuna (B1).</p>	<p>B1.1 Ekintza motorrean eta jarduera fisikoaren intentsitate kontrolatzeko mekanismoetan parte hartzen duten faktoreak aintzat hartzea, norik bere praktikan aplikatzea eta osasunarekin erlazionatzea.</p>

4. koadroa. Illes Balears			
IKASGAIA	ETAPAKO HELBURUAK	EDUKI-MULTZOAK	EBALUAZIO-IRIZPIDEAK
Geografia eta Historia	<ol style="list-style-type: none"> 1. Gertakari politiko, ekonomikoa eta kulturalen prozesuak eta mekanismoak eta horien artean sortzen diren harremanak identifikatzea. Ezagutza hori gizarteen bilakaera eta horien arazo nagusiak azaltzen dituzten kausak ulertzeko erabiltzea. 2. Eremua eta balibideak erabiltzerakoan, eskala desberdinak erabiliz, ingurune fisikoaren oinarritzko elementuak identifikatzea, aurkitzea eta aztertzea, baita horien eta giza taldeen arteko interakzioak ere. Interakzio horien ondorio ekonomikoak, sozialak, kulturalak, politikoak eta ingurumenekoak balioztatzea. Balear irletako balibideen erabileraren arazo espezifikoa ezagutzea. 3. Lurraldea gizarteen eta ingurumenaren arteko interakzioen emaitza bezala ulertzea; izan ere, gizarteen ingurumen hori kudeatzen dute eta horretan garatzen dira. 9. Geografiaren eta historiaren berezko metodoak eta teknikak erabiliz, hainbat iturritik lortutako -ingurumen fisiko eta soziala, liburutegiak, hedabideak eta informazio eta komunikazio teknologiak- informazio mota desberdinak -ahozkoa, grafikoa, ikonikoa, estatistikoa eta kartografikoa- bilatzea, aukeratzea, ulertzea eta erlazionatzea; informazio hori lortu nahi den helburuaren arabera lantzea eta beste batzuei modu antolatua eta ulergarri batean igortzea. 10. Talde lanetan eta eztabaidetan jarrera konstruktibo, kritikoa eta tolerante batez parte hartzea, iritzia ondo oinarrituz eta elkarriketa giza- eta gizarite-arazoak konpontzeko funtsezko bidetat hartuz. 	<p>Giza espazioa (B1).</p>	<p>B1.3 Balear Irlek eta Espainiak aurrean dituzten ingurumen-arazoak eta -ertronkak, horien jatorria eta horiek konpontzeko bideak ere ezagutzea eta aztertzea.</p> <p>B1.12 Garapen iraunkorraren ideia eta horren ondorioak ulertzea.</p>

Iturria: Egilea bera, honetan oinarrituta: Balear Irletako 34/2015 DEKRETUA, maiatzaren 15ekoa, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako curriculumaren ezartzen duena. Hemen: <http://www.caib.es/eboibfront/es/2015/10308/564908/decreto-34-2015-de-15-de-mayo-por-el-que-se-establ>

5. koadroa. Catalunya

IKASGAIA	ETAPAKO HELBURUAK	EDUKI-MULTZOAK	EBALUAZIO-IRIZPIDEAK
<p>Naturaren Zientziak: Biologia eta Geologia</p>	<p>4. Eskola eremuan ikertzeko moduko arazo zientifikoak identifikatzea eta ebaztea, ikerketa esperimentalak diseinatzea, egitea eta komunikatzea eskatzen dutenak.</p> <p>11. Gizakion esku-hartzeak ingurumenean dituen ondorioak saihesten edo minimizatzen dituzten neurriak hartzea, irizpide zientifikoak erabiltzen dituztenak.</p> <p>12. Gizabanakoaren eta gizartearen eremuetan, giza gorputzaren detekzio- eta erantzun-estrategiak ezagutzean oinarritzen diren prebentzio-neurriak eta ohitura osasungarriak hartzea.</p> <p>14. Elikadura anitzeko eta orekatuko ohiturak garatzea, osasuna sustatzen dutenak eta jokabide arriskutsuak, elikadura arazoak eta horri lotutako gaixotasunak saihesten dituztenak.</p>	<p>Teoria eta gertaera esperimentalak (B2).</p> <p>Giza nutrizioa (B4).</p>	<p>B2.2 Beste batzuek egindako ikerketei buruzko dokumentuak kritikoki irakurri, gai sozio-zientifiko polemikoen inguruan norberaren ikuspuntua argudiatzea, emandako prozedurak eta arrazoiak baloratu ahal izateko.</p> <p>B4.5 Elikadura orekatu baten garrantzia justifikatzea, zelulek behar dituzten nutrienteak eta dietaren eta osasunaren arteko harremana alpatuz.</p> <p>B4.11 Elikadura anitzaren eta orekatuaren eta orokorrean, ohitura osasungarrien garrantzia baloratzea.</p>
<p>Katalana eta gaztelania</p>	<p>1. Informazioa eskuratzea eta eguneroko idatzien, hedabideen eta idatzi akademikoien edukia interpretatzea eta baloratzea, horiek ulertu ahal izateko.</p> <p>3. Informazioa bilatzeko eta kudeatzeko estrategiak garatzea, ezagutza eskuratzeko helburuz.</p> <p>4. Idatzia komunikazio egoeraren arabera (hartzailea, asmoa) eta ideiak sortuz eta antolatuz planifikatzea.</p> <p>9. Diskurtsoa hasteko, mantentzeko eta amaitzeko, ahozko interakzio estrategiak komunikazio egoeraren arabera erabiltzea.</p>	<p>Irakurriko dimentsioa (B1).</p> <p>Idatziko dimentsioa (B2).</p> <p>Ahozko dimentsioa (B3).</p>	<p>B1.2 Eguneroko, gizarte harremanetako, biziak akademikoak eta hedabideetako idatziak irakurtzea, ulertzea, interpretatzea eta baloratzea, zentzu orokorra antzemanaz, informazio garrantzitsua identifikatuz, informazio zehatzak ateraz, inferentziak eginez...</p> <p>B2.6 Eguneroko biziaren, gizarte harremanen, biziak akademikoaren eta hedabideen erabileraren eremuarekin erlazioan dutako testuak idatzea, eta horien helburuarekin erlazioa dutenak.</p> <p>B3.10 Jendaurrean hitz egiten ikastea, egoera formal zein informalean, banaka zein taldean.</p> <p>B3.11 Ezbaidak eta mahai-inguruetan parte hartzea, pixkanaka, komunikazio harremana arautzen duten arauetara moldatuz: koherentzia, kohesioa, zuzentasuna, egokitasuna.</p>

5. koadroa. Catalunya			
IKASGAIA	ETAPAKO HELBURUAK	EDUKI-MULTZOAK	EBALUAZIO-IRIZPIDEAK
Gorputz-Hezkuntza	<ol style="list-style-type: none"> Osasunari dagokionez, norberaren egoera fisikoa hobetzeko edo mantentzeko lan-plana aplikatzea. Ariketa fisikoa ohitura osasungarriak txertatuz, bizimodu aktibo baten ondorioak batoratzea. Etorrizuna gaurko erabakien eta ekintzen emaitza izango dela ulertzeko, oraina iraganaren emaitza dela ulertzea. Eredu geografikoko elementuen arteko harremanak azaltzea, lurraldean giza jarduerak iraunkortasun irizpideen arabera kudeatzeko. Politika-, ekonomia- eta lurralde-antolaketa eredu desberdinak eta horiek sortzen dituzten desberdintasunak aztertzea, horiek pertsonen bizitzan duten eragina balioztatzeko eta ekintza-proposamenak garatzeko. Gizarte-arazo garrantzitsuen inguruan berezko iritzi bat eratzeko, pentsamendu kritikoa garatzeko. Justiziaren, askatasunaren eta gizon eta emakumeen arteko berdintasunaren defentsaren alde agertzea eta horrekin konprometitzea. 	<p>Egoera fisikoa eta osasuna (B1).</p> <p>Jarduera ekonomikoa eta antolaketa politikoa (B2).</p>	<p>B1.5 Elikadura orekatuaren eta, egiten den jarduera fisikoaren arabera, beharrezko egokitzapenen garrantzia onartzea.</p> <p>B2.1 Adierazle sozio-ekonomikoak erabiliz, baliabideen banaketaren desorekak aztertzea, izan daitezkeen kausak eta ondorioak azalduz, eta garapen iraunkorra laguntzeko neurriak identifikatzea.</p> <p>B2.2 Munduko eta batez ere Europako ekonomiaren funtzionamenduaren alderdi desberdinak aztertzea, herrien interdependentzia eta zenbait politika ekonomiko nabarmenduz.</p> <p>B2.3 Nekazaritza-eremuak eta beren ezaugarriak aztertzea eta munduko nekazaritza-paisaia nagusiak bereiztea.</p> <p>B2.4 Industria-eremuak deskribatzea eta aztertzea eta zenbait paisaia industrial bereiztea. Munduko industria-ekoizpen eremu edo ekoizpen-gune nagusiak identifikatzea eta globalizazio ekonomikoan gaur egungo lokalizazio eta deslokalizazio faktoreak identifikatzea.</p>
Gizarte Zientziak: Geografia eta Historia			

Iturria: Egilea bera, honetan oinarrituta: Kataluniako 187/2015 DEKRETUA, abuztuaren 25ekoa, derrigorrezko bigarren hezkuntzako ikasketen antolaketari buruzkoa. Hemen: <https://www.sis.net/documentos/legislativa/503987.pdf>

6. koadroa. Comunitat Valenciana

IKASGAIA	ETAPAKO HELBURUAK (Ez dira ikasgaika espezifikatzen, beraz, etapako helburu orokorretatik curriculum-enplifikazio honekin zerikusi handiagoa duten horiek aukeratu ditugu.)	EDUKI-MULTZOAK	EBALUAZIO-IRIZPIDEAK
Biologia eta Geologia	<p>i) Gelan ikasketa kooperatiboa, diziplinarteko proiektuak, informazio eta komunikazio teknologien erabilera eta hezkuntza inklusiboaren praktika txertatzen dituzten metodologia didaktiko berritzaileak garatzea.</p> <p>k) Konpetentziak eskuratzeko oinarritutako ikasketara eta ikaskuntzara bideratutako material didaktikoak sortzea.</p>	<p>Metodologia zientifikoa eta ikerketa-proiektua (B1).</p>	<p>B1.4 Ikerketa dokumental edo esperimental baten abiapuntu bezala, arazo esanguratsuak planteatzea, fenomeno naturalei buruzko galderak eginez, eta hipotesi egokiak proposatzea, esperimentazioaren edo behaketaren eta arrazoiketaren bitartez horiek egiaztatzeko.</p> <p>B1.6 Lan edo proiektu indibidualak edo kolektiboak planifikatzea eta ingurumenari buruzko talde-ikerketa proiektu bat garatzea.</p>
		<p>Pertsonak eta osasuna (B2).</p>	<p>B2.6 Elikadura-ohitura pertsonalak eta kulturalak eta nutrizio prozesu fisiologikoak bereiztea, elikagaien nutriente mota nagusiak eta beren funtzioak identifikatzea, baita dieta orekatu baten ezaugarriak ere; elikadura-ohitura osasungarriek eta ariketa fisikoa egiteak ongizatea handitzeko eta obesitatea prebenitzeko duten garrantzia justifikatuz, eta elikadura-jokabide arazoan aurtean laguntzeko premia onartuz.</p>

6. koahroa. Comunitat Valenciana				
IKASGAIA	ETAPAKO HELBURUAK	EDUKI-MULTZOAK	EBALUAZIO-IRIZPIDEAK	
Katalana eta gaztelania	i) Gelan ikasketa kooperatiboa, diziplinarteko proiektuak, informazio eta komunikazio teknologien erabilera eta hezkuntza inklusiboaren praktika txertatzen dituzten metodologia didaktiko berritzaileak garatzea.	Entzutea eta hitz egitea (B1).	B1.1 Ikasleen interesekin bat datozen gaurkotasun-gaiei buruzko komunikazio harremanetan modu aktiboan eta begirunez parte hartzea.	
	k) Konpetentziak eskuratzeko oinarritutako ikasketara eta ikaskuntzara bideratutako material didaktikoak sortzea.	Irakurtzea eta idaztea (B2).	B1.3 Berezko iritzi bat sortzearen, hainbat motako, tipologiako eta erregistroko ahozko eta ikus-entzunezko testuak interpretatzea, eremu pertsonal, akademiko eta sozialekoak; testura eta entzuteko helburura egokitutako ahozko ulermen estrategiak modu autonomoan erabiltz.	
Gorputz-Hezkuntza	i) Gelan ikasketa kooperatiboa, diziplinarteko proiektuak, informazio eta komunikazio teknologien erabilera eta hezkuntza inklusiboaren praktika txertatzen dituzten metodologia didaktiko berritzaileak garatzea.	Egoera fisikoa eta osasuna (B1).	B1.4 Jarrera eta bizimodu osasuntsuen eta gorputz-irudiaren, aisialdiko jardueren, jarduera fisikoaren eta kirolaren eta gaixotasunen eta akizioen prebentzioaren arteko harremana aztertzea eta, gaur egun, jokabide horiek bizitza pertsonalean duten onurak nabarmentzea.	
	k) Konpetentziak eskuratzeko oinarritutako ikasketara eta ikaskuntzara bideratutako material didaktikoak sortzea.		B2.5 Sormena erabiltz eta hausnarketaren eta elkarrizketaren bitartez, ikasleentzat motibatzaileak diren gaiei buruzko lan edo proiektu indibidualak egitea, lan-proiektu baten faseei jarraitzen dietena eta azalpenezko edo argudiozko produktu original bat lortzeko helburua dutenak. Giden laguntzak prozesua eta emaitza ebaluatzea; eta lortutako emaitzak modu pertsonalean komunikatzea.	

IKASGAIA	ETAPAKO HELBURUAK	EDUKI-MULTZOAK	EBALUAZIO-IRIZPIDEAK
<p>Geografia eta Historia</p>	<p>i) Gelan ikasketa kooperatiboa, diziplinarteko proiektuak, informazio eta komunikazio teknologien erabilera eta hezkuntza inklusiboaren praktika txertatzen dituzten metodologia didaktiko berritzaileak garatzea.</p> <p>k) Konpetentziak eskuratzean oinarritutako ikasketara eta ikaskuntzara bideratutako material didaktikoak sortzea.</p>	<p>Giza espazioa (B3).</p>	<p>B3.3 Eredu geografikoko gizarte eta politika eragileen ekintzak oinarritzko gizarte premiak ase beharrezkin lotzea, eta merkatu-ekonomiaren testuinguruan, jarrera eta interes horiek ingurumenean, gizartean eta ekonomian ondorioak dituztela erakusten duten adibideak aukeratzea; prozesu ekonomiko eta politiko esanguratsuak hobeto ulertzeko.</p> <p>B3.4 Tamaina desberdinetako eremu geografikoen dinamika eta funtzionamenduak eta horiek dituzten interkonexioen globaltasuna aztertzea eta horien adibideak ematea, honako hauek erreferentzia gisa hartuta: produktu eta ondasunen eta informazioaren hartu-emana, biztanleen lekualdaketa, eta erabaki politikoak eta ekonomikoak.</p> <p>B3.6 Jarrera kritikoa hartuz, zenbait gizarte-, ekonomia- edo lurralde-politikaren egokitasuna balioztatzea -gatazka politikoak, gizarte desberdintasunak eta ingurumen arazoak sortzeko ahalmenaren arabera-, eta giza eskubideak eta garapen iraunkorra errespetatzean oinarritutako proposamenak sortzea.</p>

Iturria: Egilea bera, honetan oinarrituta: Valentiako Erkidegoko 87/2015 DEKRETUA, ekainaren 5ekoa, curriculuma ezartzen eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko antolamendu orokorra garatzen duena. Hemen: https://www.docv.gva.es/portal/portal/2015/06/10/pdf/2015_5410.pdf

7. koadroa. Eduki multzoen eta ebaluazio-irizpideen zehaztapena ikasgaika eta autonomia-erkidegoka. 3. DBH

IKASGAIA	EDUKI-MULTZOAK	EBALUAZIO-IRIZPIDEAK			
		CATALUNYA	COMUNITAT VALENCIA	EUSKADI	ILLES BALEARS
Biologia eta Geologia	Ikerketa. Metodologia.	B2.2 Gai sozio-zientifiko polemikoen inguruan berezko ikuspuntua argudiatzea.	B1.4 Ikerketa dokumental edo esperimental baten abiapuntu bezala arazo garrantzitsuak planteatzea. B1.6 Banakako edo talde-lanak edo -proiektuak planifikatzea.	B1.1 eta 3 Ikerketak egitea, berezko iritzia eratzeta.	B1.2 Informazio zientifiko interpretatzea eta argudiatzeko erabiltzea.
	Nutrizioa, pertsonak, osasuna.	B4.5 Elikadura orekatu baten garrantzia justifikatzea. B4.11 Elikadura anitz eta orekatu baten eta, orokorrean, ohitura osasungarrien garrantzia baloratzea.	B2.6 Ohitura pertsonalak eta kulturalak. Elikadura ohitura osasungarrien garrantzia justifikatzea.	B3.7 Osasun eta gaixotasun kontzeptuak ezagutzea. B3.8 Ohitura eta bizi-estilo osasungarriak izatearen garrantzia balioestea. B6.14 Inguruko ekosistema bati buruzko ikerketa soilak egitea, desorekak identifikatuz eta hori babestearren eta kontserbatzearen garrantzia aintzat hartuz.	B4. 3, 11, 12 eta 13 Osasun eta gaixotasun kontzeptuak ulertzea. Elikadura eta nutrizioa bereiztea. Dietaren eta osasunaren arteko lotura ezartzea. Elikadura onaren garrantzia aintzat hartzea.

EBALUAZIO-IRIZPIDEAK					
	EDUKI-MULTZOAK	CATALUNYA	COMUNITAT VALENCIA	EUSKADI	ILLES BALEARS
IKASGAIA	Ahozko komunikazioa. Entzutea eta hitz egitea.	B3.10 eta 11 Jendaurrean hitz egitea. Eztabaidetan parte hartzea.	B1.1 Komunikazio-harremanetan parte hartzea. B1.3 Ahozko eta ikus-entzunezko testuak ulertzea.	B2.1 Hainbat euskarritan dauden ahozko testuak ulertzea, zentzu orokorraz ohartuz eta informazio egokia hautatuz. B2.4 Gizarte intereseko gaiet buruzko ahozko harremanetan parte hartzea.	B1.1 Hainbat eremuko (pertsoneala, akademikoa/ eskolako eta soziala) ahozko testuak ulertzea. B1.6 Jendaurrean hitz egiten ikastea.
	Idatziko komunikazioa. Irakurtzea eta idaztea.	B1.2 Eguneroko, gizarte-harremanetako, bizitza akademikoko eta hedabideetako testuak irakurtzea, ulertzea interpretatzea eta aintzat hartzea. B2.6 Helburuari dagozkion testuak idaztea.	B2.5 Banaka eta taldean lan-proiektuak egitea, azken emaitza lortzeko beharrezkoak diren faseei jarraituz.	B3.2 Hainbat euskarritan dauden idatziko testuak ulertzea, zentzu orokorraz ohartuz eta informaziorik eta daturik garrantzitsuenak hautatuz. B3.3 Azalpen- eta argudio-testu eraginkorrak egitea, argiak eta egituratuak.	B2.3 Testuen irakurketa kritikoa eta burutsua egitea.
Gaztelania eta literatura					

IKASGAIA	EDUKI-MULTZOAK	EBALUAZIO-IRIZPIDEAK			
		CATALUNYA	COMUNITAT VALENCIA	EUSKADI	ILLES BALEARS
Gorputz-Hezkuntza	Egoera fisikoa eta osasuna.	B1.5 Elikadura orekatua izatearen eta hori jarduera fisikoaren arabera moldatzearen garrantzia aintzat hartzea.	B1.4 Jarrera eta bizi-estilo osasungarriaren eta gorputz-irudiaren arteko harremana; gaixotasunak prebenitzea.	B.2.5 Elikadura orekatuak osasunerako duen garrantziaz hausnartzea.	B1.1 Ekintza motorreko faktoreak eta jarduera fisikoaren kontrol mekanismoak identifikatzea; osasunarekiko erlazioa.
Geografia eta Historia	Jarduera ekonomikoa eta antolaketa politikoa. Giza espazioa.	B2.1 Baliabideen banaketan dauden desorekak, horien kausak eta ondorioak, eta garapen iraunkorra laguntzeko neurriak aztertzea. B2.2 Munduko ekonomia aztertzea, herrialdeen arteko interdependentzia nabarmenduz. B2.3 Munduko nekazaritza-eremuen ezaugarriak aztertzea. B2.4 Industria-eremuak aztertzea. Munduko ekoizpen-gune nagusiak aurkitzea eta, globalizazio ekonomikoaren barruan, lokalizazio-eta deslokalizazio-faktore nagusiak identifikatzea.	B3.3 Gizarte eta politika eragileen jarduerak eremu geografikoan, merkatu-ekonomia testuinguru batean ingurunean ematen diren ondorioak. B3.4 Dinamikak, interkonexioak eta produktuen hartu-emana aztertzea. B3.6 Politiken egokitasun maila → gatazkak, jarrera kritikoa → giza garapen (GG) eta garapen iraunkor (GI) proposamenak.	B2.1 Ekonomia-eragile eta -erakunde nagusiak ezagutzea eta gero eta mendekotasun handiagoko ekonomian elkarrekiko zer eginkizun duten jakitea, eta jakintza hori hurbileko zenbait egoera ekonomiko aztertzeko eta balioesteko erabiltzea. B2.3 Nekazaritzaren ezaugarri eta arazo batzuk identifikatzea. B2.12 Inguru hurbileko kasu bat; jarduera ekonomikoaren ingurumen-eraginak, garapen jasangarriaren formak bereiziz.	B1.3 Ingurumen-arazoak ezagutzea eta aztertzea. B1.12 Garapen iraunkorraren ideia eta bere inplikazioak ulertzea.

Iturria: Egilea bera.

GAI-PROPOSAMENA

Proiektua arazo garrantzitsu batean zentratuko da, elikaduraren gaian, alegia. Izan ere, hori gai konplexua da eta jakintza-eremu desberdinetatik landu beharra dago. Hori ulertzeko, beraz, ikuspegi ekonomikoak, politikoak, sozialak, kulturalak eta eskubidekoak txertatu behar ditugu², besteak beste; betiere generoko inplikazioak, bizitzaren iraunkortasuna eta -gizarte eta ingurumen- justiziaren etika kontuan hartzen duten azterketak eginez.

Exenplifikazio honek elikadura ikertzea proposatzen du, honako hauek biltzen dituen ziklo batean oinarrituz: i) lehengaien erauzketa eta erabilpena; ii) elikagaien ekoizpena -hain zuzen ere, nekazaritza eta abeltzaintza ekoizpena-; iii) elikagaien eraldaketa; iv) banaketa; v) kontsumoa; eta vi) hondakinen kudeaketa³.

Azterketa honen bitartez, alde batetik, ingurumenean eta gizartearen eragin handia duen eredu agroindustrialaren -ekonomia lineala-funtzionamenduaren arrastoari jarraitu ahal izango diogu. Eragin hori bistakoa da bizi dugun krisi ekologiko sakonari eta hegoalde globaleko gizartearen pobrezia eta desberdintasunei erreparatzen diegunean. Horiek, gainera, iparralde globalaren ekintzaren ondorioz larriagotzen dira⁴.

2. Eskubide-ikuspegia. Desberdintasunen azterketan zentratzen da honako helburu hauekin: alde batetik, banaketa bidegabe hori eta botere desorekak konpontzeko ekintzak sustatzea; eta bestetik, pobrezia eta bazterketa ezabatzea. Beraz, pertsonen eta komunitateen beren eskubideekin, kulturarekin eta lurraldeekin bat datozen berezko gizarte- eta politika-ereduak garatzeko baldintzak sortu nahi dute, ikuspegi kritikoak, anitzak eta feministak erabiliz.

3. Egia esan, eredu agroindustrial eta eredu agroekologikoa esploratzen ditugun heinean, fase horietako bakoitza lantzeko ikuspegia eta sortzen dituzten ondorioak erabat desberdinak direla ohartuko gara. Esate baterako, lehenengo ereduak tratatu gabeko hondakin asko sortzen ditu, oso kutsagarriak eta ingurumen-eragin handikoak; bigarrenak, aldiz, ekoizpen ereduak ingurumen-eragina minimizatzen helburuz antolatzen du, ekosistemak leheneratzeko -ziklo naturalak errespetatuz- eta hondakin kopuru minimoa sortzeko (edo, behintzat, horiek erabilera berrietarako berreskuratuz edo birziklatuz). Azken honen kasuan, ikuspegia integrala da.

4. Hitz horiek Boaventura de Sousa Santosek ematen dien zentzuarekin erabiltzen ditugu: "Hegoalde globala ez da, beraz, kontzeptu geografiko bat, herrialde horietako biztanle gehienak hego hemisferioan bizi badira ere. Aitzitik, kapitalismoak eta kolonialismoak mundu osoan sortzen duen giza-sufrimenduaren metafora bat da, baita hori gainditzeko edo minimizatzen erresistentziarena ere. Horrexegatik, Hegoaldea antikapitalista, antikoloniala eta anti-inperialista da. Hegoalde hori iparralde globalean ere aurkitzen dugu, baztertutako, isilarazitako eta marjinatutako biztanleengan, hau da, paperik gabeko etorkinengan, langabeengan, gutxiengo etniko eta erlijiosoetan, sexismoaren biktimengan, homofobian eta arrazakerian" (2011:35).

Bestetik, genero-ikuspegidun elikadura burujabetzaren proposamenarekin bat datorren eredu agroekologikoa -ekonomia zirkularra- ezagutuko dugu. Hori alternatiba bat da gaur egungo elikadura-ereduaren aurrean, gizarte-justizia eta ingurumen-iraunkortasun irizpideetan oinarritzen baita.

Mundu globalizatu batean bizi gara. Horretan, erauzketan oinarritutako sistema kapitalista ekoizpen-eredu posible bakar bezala aurkeztu digute -horregatik esaten dugu hori hegemonikoa dela- eta, hala, sistema hori planeta osora hedatu da tokiko eta eskualdeko ekonomiei kalte eginez eta gure buruak gizarte-, hezkuntza- eta komunikazio-baliabideen bitartez kolonizatuz. Horren ondorioz, kultura indibidualista eta hiperkontsumista sortu eta hedatu da eta hori oztopo handi bat da guztion ona eta bizitzaren iraunkortasuna bilatzen duten eredu alternatiboa bilatzeari dagokionez.

Ekoizpen-bide kapitalista **ekonomia lineal** batean oinarritzen da, planetaren mugak eta pertsonak eta komunitateek bizitza duina, bidezkoa eta iraunkorra izateko dituzten premiak kontuan hartzen ez dituen. Izan ere, eredu horrek krisi ekologiko sakona larriagotzen du eta munduko gehiengo handiak baztertzen ditu, pobrezia, desberdintasuna eta bazterkeria handituz. Sistema hori erauzi-produzitu-kontsumitu-bota logika duen sistema bat da.

1. irudia. Ekonomia lineala



Beste ekoizpen-eredu batzuk, ordea, ziklo naturalak, planeta eta pertsonak eta beren lurraldeak eta kulturak errespetatzen saiatzen dira; lehengaiak modu jasangarri batean erabiltzen saiatzen dira, energia fosilen erabilera murriztuz eta, horien ordean, energia garbi eta berriztagarriak erabiliz; behar den kontsumo horretarako ekoizten dute; tokiko ekonomia sustatzen dute, merkaturatze bide laburrak; eta hondakinen murrizketa eta berrerabiltze- eta birzilatze-estrategia erabiltzen dituzte baliabideak ahalik eta gehien aprobetxatzeko. Hori da, hain zuzen ere, **ekonomia zirkularra**.

2. irudia. Ekonomia zirkularra



Errealitatearen azterketa kritikoa egiteko eta elikadurari buruzko arazoak hobeto ulertzeko ezinbestekoa da, eredu batoren eta bestearen logika sozioekonomikoak aztertzean, ikuspegi feminista txertatzea.

Emakume baserritarrek mendeetan zehar honako lau hauek hartu dituzte beren gain: pertsonen zaintza -lan erreproduktiboa-; elikagaien ekoizpena (lurra landuz, abereaz haziz, baliabideak -ura, haziak...- kudeatuz, belaunaldiz belaunaldi transmititutako ezagutzak eta jakintzak bilduz, ziklo naturalak errespetatuz eta beraien familiak elikatuz) -lan

produktiboa-; eta komunitatearen kudeaketa, antolaketa eta zaintza -lan komunitarioa-. Historikoki hori guztia eremu pribatukoa izan da eta, hala, alde batera utzi eta ez da behar bezala aintzat hartu izan. Bestalde, nekazaritza lanaren eremu publikoa gizonen eskuetan izan da, horiek izan baitira transakzio ekonomikoak egin dituztenak; plaza eta azoketan produktuak salduz, abereen salerosketa eginez eta, orokorrean, lurraren jabe izanez.

Eredu kapitalistaren hedapenaren ondorioz genero-desberdintasun hori larriagotu egin da. Kapitalismoak -kostu txikienarekin irabazi ekonomiko handiena bilatuz- nekazaritza-industria bultzatu du eta multinazional handien eskuetan utzi du elikadura. Lur-pilaketa, ekoizpenaren mekanizazioa eta eraldaketa-, banaketa- eta merkaturatze-sistemak konplexuago bihurtzeko prozesuen ondorioz nekazari asko beren lurraldeetatik kanporatu dituzte. Hala, emakumeak direlarik egoera ahulenean geratu direnak.

Zentzu horretan, elikadura burujabe-tzaren eredu alternatiboak desberdintasun horiek kontuan hartzen ditu eta ikuspegi feminista txertatzen du bestelako eredu bidezkoak, iraunkorrak, osasungarriak eta kulturalki egokiak lortzeko bidean aurrera egiteko. Ikuspegi horrek, bada, honako hau proposatzen du:



Zaintza lanen ardurakidetzia. Bizitzaren iraunkortasunerako funtsezkoak diren zaintzak⁵ emakumeen eskuetan egon ohi dira baina horiek birbanatu beharra dago, gizonen eta emakumeen artean modu ekitatiboan banatuz.

Emakume baserritarren lana aintzat hartzea, honako hauei dagokienez: elikagaiak ekoiztea, haziak gordetzea, jakintza eta ezagutza herritar eta zientifikoak sortzea eta transmititzea, eta ekosistemen oreka zaintzen, ziklo naturalak errespetatzen eta bioaniztasuna mantentzen duten nekazaritza praktikak martxan jartzea.

Emakume baserritarrak ahalduntzea. Emakume baserritarrak subjektu politikotzat hartzea, beraien agentzia-gaitasuna⁶ sendotuz eta beraien borrokak, erresistentziak eta proiektu politikoak bistaritzen lagunduz.

5. "Zaintzak", bada, pertsoneri eta komunitateei ongizate fisiko, psikiko, afektibo eta emozionala emateko jarduerak dira. Jarduera horiek askotarikoak eta desberdinak dira egoeren eta testuinguru arabera eta genero, senidetasun eta adin kategoriek zeharkatzen dituzte. Hala, historikoki, emakumei eman zaie zaintzaren ardura, lan horiei ez ikusia eginez, balio gutxi emanez eta bizitzaren iraunkortasunerako duten garrantzia gutxietsiz.

6. "Agentzia" emakumeek aldaketaren eragile eta gizarte eraldaketen sustatzaile dinamiko bezala garatzen duten gaitasuna da. Azken finean, munduan eragiteko eta hori eraldatzeko gaitasuna da. Emakumeen agentzia-gaitasuna handitzeko beharrezkoak dira honako hauek: hezkuntza eta gizartean emandako suposizio patriarkalak eta androzentrikoak deseraikitze prozesuak; errealitatea eta menperatze-

METODOLOGIA

Gauregungo elikadura-sistemei buruzko lanaren bitartez ikaskuntza esanguratsua eta ikasleen parte-hartze aktiboa sustatu nahi dugu eta honako hauei lotutako gaitasunak garatzen lagundu nahi dugu: ikerketa, tokiko-global errealitatea modu konplexuan ulertzea, planteatutako arazoei sormenkidetzazko konponbideak bilatzea eta eraldaketa ekintzekiko konpromisoa. Hori guztia eta komunikazio gaitasunak garatzea dira, hain zuzen, proposamenaren elementu nagusiak.

Exenplifikazio honetarako, beraz, Proiektuetan Oinarritutako Ikaskuntza (POI) metodologiaren bitartez lan egitea proposatzen dugu. Horrek ikasleei ematen die beren ikasketa-prozesuaren protagonismoa.

POI metodologiak diziplinarteko programa bat garatzen lagunduko du, konplexutasunez eta zeharkakotasunez sortutako jakintzen, edukien eta interpretazio-markoen arteko harremanak eta loturak ezartzen lagunduko duena.

POI metodologia txertatzen duten ikerketa prozesuei esker, ikasleak gai izango dira elikaduraren negozioaren atzean dauden testuinguruak eta interesak ulertzeko; hori konplexutasunez aztertzeko; ekoizpen-eredu agroindustrialak eta agroekologikoak irudikatzen dituzten kontrako eredu horietan ematen diren erauzketa-, ekoizpen-, banaketa-, kontsumo- eta hondakinen kudeaketa-prozesuen arteko desberdintasunak identifikatzeko. Eta hori guztia behatzeko eta baloratzeko planteamendu etikoa eta ikuspegi ekosistemikoa, feminista eta eskubidekoa erabiliko dugu.

Gaiaren inguruan taldeak garatu beharko duen ikerketa-lanak hainbat estrategia txertatuko ditu:

1. Lankidetzaren plan bat ezartzea;
2. Harreman-eskemak eta mapa kontzeptualak sortzea;
3. Iturri anitz erabiltzea;
4. Informazioa aztertzea, horretan eragileak, interesak eta ikergaiaren ezaugarrien kausak identifikatzea beharrezkoa delarik.
5. Gizartean orokorrean eta kolektibo jakinetan sortzen diren eraginak eta ondorioak ulertzea;
6. Bidezko eta berdintasunezko alternatibak bilatzea eta, aldaketa lortze aldera, maila indibidual eta kolektiboan onargarriak diren konpromisoak zehaztea;
7. Ikasitakoa publiko jakin batekin partekatzeko komunikazio-kanal bat zehaztea. Estrategia horrek hiru helburu hauek ditu:
 - ▶ Ikasleei prozesuan zehar ikasitakoari buruzko informazioa ematea;
 - ▶ Informazioa modu egituratuan sistematizatzeko eta antolatzeke aukera ematea;
 - ▶ Hartzaileengan gaur egungo elikadura-sistemek pertsonen eta planetaren osasunean sortzen dituzten ondorioei buruzko kontzientzia sortzea eta genero-ikuspegidun elikadura burujabetzari lotuta izan daitezkeen alternatibak ezagutzera ematea.

8. koadroa. Proiektuetan Oinarritutako Ikaskuntza

LAN- PROZESUARI DAGOKIONEZ	<ol style="list-style-type: none">1. Motibazio-fasea. Ikasleentzat motibagarria den jarduera bat proposatzea, landuko den gaia ezagutzeko jakin-mina pizten diena eta lan-prozesuan parte hartzera bultzatzen dituena.2. Aldez aurretiko ideiak. Ikasleek kontzientzia hartzen eta proiektuaren inguruan dakiten hori adierazten dute.3. Ikerketa-fasea hipotesi batekin abiatzen da. Horrekin batera prozesua bideratuko duen galdera eragile bat izango dugu. Talde bakoitzak bere ibilbidea, erabiliko dituen baliabideak, behar duen informazioa eta abar zehaztuko du.4. Amaierako lan bat egingo dute, formatuaren arabera produktu desberdinak emango dituena (testua, ikus-entzunezkoa, aurkezpena, horma-irudia, lan artistikoa, maketa, bloga...). Exenplifikazio honetan amaierako produktu hori bideo bat izatea proposatzen dugu.
TALDE-LANARI DAGOKIONEZ	<ol style="list-style-type: none">1. Talde bakoitza osatuko duten ikasle taldea eratzea (gutxienez 3, gehienez 5). Talde heterogeneoa izatea komeni da, gaitasun desberdinak dituena.2. Lan-prozesua elkarrekin eztabaidatzea eta zehaztea, norberaren eta taldearen ardurak betetzeko konpromisoarekin.3. Arazoaren hasierako azterketa. Horren inguruan ikasleek aldez aurretik dituzten ezagutzak partekatzea. Gaiak, ikuspegiak edo aztertze alderdiak proposatzea.4. Antzeko eginkizunak ekitatiboki banatzea (hau da, kide guztiek ikertzen dute, aztertzen dute, idazten dute...; lan jakin batzuk hobeto -edo errazago- egiten dituzten horiek beren lankideak laguntzea eta ezagutza edo gaitasun hori partekatzea lortu nahi dugu).5. Ikerketa eta azterketa lana. Banakako lanerako, lana partekatzeko (ziklo desberdinak izan ditzakete), aztertze edo edukien eztabaidarako epeak zehaztuko dira.6. Emaizten zirriborroa komunikatzea. Talde bakoitzak gainontzeko taldeekin partekatzen eta kontrastatzen dituzte bere ondorioak. Hala, lana kideen ekarpenekin edo iradokizunekin aberasteko aukera ematen da.7. Akordioak lortzea eta lana egitea. Formatua aukeratzea: testua, aurkezpena -impress, power point, prezi...-, ikus-entzunezkoa, artistikoa.8. Komunikatzea. Horretan, kide bakoitzak antzeko ardura bat izatea komeni da.

Iturria: Egilea bera.

Irakasleen rola

Irakasleen rola funtsezkoa da prozesua bideratzeko eta taldeek gelan egiten duten lana laguntzeko. Arreta berezia eskaini behar diegu taldeen barne dinamikei, POI metodologia gidatzen duen filosofia gauzatzeko; hau da, elkar-laguntzaren, lankidetzaren, gaitasunak batzearen, autonomiaren eta pentsamendu kritikoa garatzearen bitartez ikasketa erraztu nahi duen filosofia.

Halaber, ikusiko dugunez, horrek ikasleak motibatzea, beraien interesekin konektatzea, zalantzak argitzea eta fase bakoitzean orientabidea ematea eskatzen du; emaitzaz gain ikasketa-prozesua aintzat hartzen duen eta ikasleak tartean sartzen dituen ebaluazio-sistema ezartzea, ikasle bakoitzak bere ikasketa eta prozesu osoa ebaluatzeko aukera izan dezan.

Ikasleek banakako lana eta talde lana balioztatzen erabiliko den ebaluazio-sistema hasieratik ezagutzea oso garrantzitsua da. Hala, ebaluazio globala -prozesu osoarena- eta ulerkorra -ez konpetentziak eta edukiak lortzeko bakarrik, baizik eta taldean lan egiteko, genero-ikuspegia txertatzeko, talde-lana dinamizatzeko eta modu kritiko eta arduratsuan parte hartzeko gaitasunak garatzeko ere- dela jakin beharko dute .

Ikasleek informazio hori prozesu hasieratik izatea lagungarria izan daiteke lana antolatzeko eta POI metodologiaren arabera egituraturako proposamen honek biltzen dituen eginkizunez eta jardueraz arduratzeko.

Hala, hasieratik izango dituzte exenplifikazio honen amaieran aurkeztuko ditugun ebaluazio-errubrikak:

- ▶ Generoko behaketari buruzko errubrika. Jantz itzan/k betaurreko lilak!!!
- ▶ Oinarriko konpetentzien ebaluazio-errubrika
- ▶ Talde-lanari buruzko ebaluazio-errubrika
- ▶ Edukien ebaluazio-errubrika
- ▶ Ikasleek ebaluatzen dute

PROPOSAMENAREN GARAPENA

1. FASEA. MOTIBAZIOA

Instagramer, youtuber, influencer... Horiek ingelesetik hartutako hitzak dira eta sare sozialen erabilerari lotutako zenbait rol identifikatzen laguntzen digute. Hitz horiek, bada, bideo laburren bitartez beren -bizitzari, gaurkotasunari, modari, joerei buruzko- ikuspegiak eta iritziak partekatzen, aholkuak ematen edo planak iradokitzen dituzten pertsonen dagozkie. Horrela, pertsona horiek beren sareari jarraitzen dioten jende kopurua handitzea lortzen dute.

Proiektu bidezko lanari ekiteko, ikasleak *influencer/eragin-sortzaile*⁷ bilakatzea proposatzen dugu, hau da, elikadura osasungarri, jasangarri eta bidezko baten aldeko joera-sortzaile. Modu argi, kritikoa eta eraginkor batean, gizarte- eta ingurumen-justizia handiagoa sortzen duten beste elikadura-eredu batzuetara ibili beharra komunikatzeko gaitasuna garatzen lagundu nahi diegu.

Beraz, esku-hartzearen hasieran martxan jartzen bada ere, jarduera horrek amaieran ematen ditu emaitzak. Izan ere, hori garatzeko -amaierako produktu bezala proposatutako ikus-entzunezkoen edukia sortzeko- ikasleek proiektu bidezko lanak dakarren ikerketa-prozesua egin behar izango dute.

Hasieratik kapsula/bideoklip tematikoen atzean dagoen lanaren egitura ezagutzea komeni da:

7. Exenplifikazio honetan ikasleek ikus-entzunezko materiala egin dezaten proposatzen dugu, baina irakasleek beste komunikazio bide batzuk esploratzeko aukera dute. Beraz, ikasleek hala nahi dutenean testu edo artikulua laburrak egin ahal izango dituzte (sare sozialetan hedatzeko ere balio dutenak). Horrela, komunikazio aukerak handitzen dira eta komunikazio-tresna eta -estilo desberdinen inguruan ikasteko aukera ematen da.

1. Ikasleek motibatzen dituen elikadurari buruzko arazoaren inguruko informazio bildu behar dute (produktuaren arabera: freskagarriak, janari lasterra, snackak...; osagarrien arabera: azukrea, gatza, gantz aseak, gehigarriak, kontserbagarriak...; ekoizpen-ereduaren arabera: industrialak, intentsiboa, ekologikoa; gertutasunaren arabera: produktu kilometrikoak, sasoiko produktuak; sortzen dituen ondorioen arabera: planetan, generoari dagokionez, ekoizle eta kontsumitzaileen bizitza hobetzeko edo kaltetzeko dagokionez).

Gaiari buruzko informazioa bildu eta aztertu, horri lotutako arazoak ulertu (kausak, irismena, tokiko/mundu mailako ondorioak...), zer nolako eragina duen ulertu eta hori konpontzeko alternatibak identifikatu. Ikerketa prozesuak berak, bada, informazio zehatza eta nahikoa emango du.

2. Edukia sortzea (izenburua, laburpena, #etiketak/hashtag-ak, sare sozialetan jarraitzea...), bideo kliparen iraupenak 3-5 minutu artekoa izan behar duela kontuan hartuz. Denbora horretara moldatzeko baina batez ere edukia interesgarria izan dadin, egitura soileko gidoi bat egin beharko dute. Horretan honako hau identifikatuko dute:
 - a. landuko duten arazoa -grabazioa jakin-mina pizten duen ideia batekin hastea komeni da-,
 - b. hori zergatik gertatzen den azaltzea,
 - c. hori ulertzen lagunduko duten bizpahiru ideia nagusiak, eta
 - d. egin daite(z)keen alternatiba bat(zuk) proposatzea; hori ikusten duenak egoera hobetzeko/aldatzeko zer egin dezakeen jakin dezan.
3. Bideoa grabatzean kontuan hartu beharreko jarraibide hauek ezagutu behar dituzte:
 - a. Originaltasuna eta sormena. Ez edukian bakarrik, baizik eta hori erakusteko moduan ere.
 - b. Alderdi teknikoak. Grabazio-ekipoei dagozkie, baina baita argiztapenari, plano-motari, antzeztokiei, musikari, atzeko planoari eta geroko edizioari ere.
 - c. Bideoaren iraupen kontrolatua. Komeni da bideoa 3-5 minutukoa izatea.
4. Bideoaren fitxa. Bideoak ordenatzeko garrantzitsua da, baita sortu dugun kanalaren beraren barruko bilaketa zein bilaketa orokorrak errazteko ere. Fitxak honako informazio hau izan behar du: izenburua, deskribapena, etiketak, iraupena eta data.
5. Ikasleek kanal bat sortu beharko dute (gela osokoa) eta horretara prozesuan sortzen diren bideo guztiak igoko dituzte. Izen labur, adierazgarri eta iradokitzailea izan beharko du eta hori identifikatzeko irudi bat aukeratuko dute.
6. Bideo bakoitzak sortzen dituen erantzunak bildu eta aztertuko dituzte sustatu edo hobetu behar den horren erreferentzia bezala hartzeko.

2. FASEA. ALDEZ AURRETIKO IDEIAK


kasleek elikadura-sistemari (ekoizpena-banaketa-kontsumoa-hondakinen kudeaketa) buruz alde zurretik dituzten ideiak aztertzeko estrategia ugari dugu: galdetegiak, eztabaida gidatuak, arazo ebazpena, ideia-jasa, argumentu-lanketa argazkietan, marrazkietan, bideoetan eta abarretan oinarrituz.

Bakar bat edo konbinazio bat erabil dezakegu komeni denaren arabera.

Honako hau proposatzen dugu adibide bezala:

9. koadroa. Aldez aurretiko ideien zundaketa

IKASGAIA	LANTZEKO PROPOSAMENA
GEOGRAFIA ETA HISTORIA	<p>Ba al dakizu zer diren elikagai kilometrikoak ?</p> <p>Zein da emakumeek elikagaien ekoizpenean duten papera?</p> <p>Zergatik daude urrunetik datozen elikagaiak?</p> <p>Nork ekoizten ditu nire elikagaiak?</p> <p>Bidezko prezioa ordaintzen al dugu elikagaiengatik?</p>
BIOLOGIA ETA GEOLOGIA	<p>Gauza bera al da elikadura eta nutrizioa?</p> <p>Bizi-funtzioak garatzeko funtsezkoak diren zenbait nutriente aipa ditzakezu?</p> <p>Zure elikadura bat al dator dieta orekatu batekin?</p> <p>Ba al dago erlaziorik elikaduraren eta osasunaren artean? Zergatik?</p>
GAZTELANIA ETA LITERATURA	<p>Defini ezazu: Elikagai freskoa; Sasoiko produktua; Elikagai prozesatua; Kontserba; Elikagai izoztua.</p> <p>Presta ezazu gidoi bat gelan gaiari buruz egingo den eztabaidarako zure ideiak antolatzeko: zergatik da garrantzitsua azalera handi batean edo denda txiki batean edo azoka batean erostea?</p> <p>Prentsa-izenburua: "Txiroak obesoa dira". Adierazpen horren aldeko edo kontrako argudioak eman, gelan eztabaidatu eta gero artikulua honetan ematen den informazioarekin egiaztatu (ikus Eranskinak).</p>
GORPUTZ- HEZKUNTZA	<p>Ba al dago erlaziorik ariketa fisikoaren eta elikaduraren artean?</p> <p>Zer esan nahi du ondo eta osasungarri jateak?</p> <p>Zeintzuk dira elikadura-ohitura osasungarriak ez izatearen ondorioak?</p>



Iturria: Egilea bera.

Aldez aurreko ideiak ezagutzea -gazteek horietaz jabetu behar dute- erabilgarria izango da hurrengo faseei dagozkien pausoak emateko, baina honen barruan okerrak, nahasiak edo faltsuak diren aurretiko ideiei arreta eskaintzea komeni da horiek zalantzan jartzen laguntzeko jardueraren bat burutzearren.

Adibidez, elikadura eta nutrizioa sinonimotzat hartzekotan, honako hau galde diezaiekegu ikasleei: izan daiteke ondo elikatutako pertsona batek nutrizio txarra izatea? Hortik sortutako eztabaidak hasierako hausnarketa harago eramaten, kontraesanak identifikatzen, sinesmenak zalantzan jartzen lagunduko die (ikasketaren psikologian gatazka kognitibo deritzona) eta geroko ikerketa-prozesuan ikasketa berriak modu sendo batean barneratzeko jarrera hobea piztuko die.

3. FASEA. IKERKETA-PROIEKTUA

Proiektuak, kapitalismoaren ekoizpen- eta kontsumo-ereduek elikaduraren sektore zabalean sortzen dituzten ondorioak argitu nahi ditu, iraunkortasunean eta elikadura burujabetzan oinarritutako ereduek sortzen dituzten horiekin alderatzeko. Horretarako, nekazaritza-industriaren eta agroekologiaren arteko konparazioak egingo ditugu, lehengaiak eraztetik hondakinak sortzera/murriztera edo tratatzera (edo ez) arteko prozesuari jarraituz.

Honako **Hipotesi** hau erabiliko dugu:

Gaur egungo elikadura-sistemak sortzen dituen ondorio negatiboak buruzko informazio zehatz eta kritikoak herritarren artean agroekologiaren aldeko kontzientzia kritikoa handitzen lagunduko luke gizarte- eta ingurumen-justizia sortzaile bezala, elikadura burujabetzaren eremuan.

Eta **galdera eragile** hau egingo dugu:

Nola kontzientziatuko zenituzke zure ingurukoak gizarte eremuan bidezkoa eta ingurumen eremuan iraunkorra den elikadura osasungarria izateko beharrari buruz?

Horri erantzuteko ikasleek honako hau egin beharko dute: a) ikerketa prozesua garatu; b) horretatik ateratzen diren ondorio nagusiak nabarmendu; c) herritarrak sentibilizatzeko/kontzientziatzeko estrategia bat identifikatu; eta d) hori martxan jarri.

Lantaldeak eratzeko (3-5 kidekoak):

Komeni da ikasleek berek lantaldeak beraien nahien arabera osatzea. Hala ere, beharrezkoa balitz, irakasleek horretan parte hartzea proposatzen dugu, batez ere desberdintasun handiak ekiditearren; hau da, taldeak beren artean homogeneous -lanerako ahalmenari dagokionez- eta barruan heterogeneoak izan daitezten. Horren bitartez prozesuan sortutako ikasketa aberasten duten gaitasun desberdinak izatea lortu nahi dugu.

10. koadroa. Ikerketa-prozesua errazteko urratsak



Iturria: Egilea bera.

1. urratsa. Ikerketa-arazoa/-kasua mugatzea

Zer ikertu nahi dugu?

Elikadura burujabetzaren eredia eredu agroindustrialaren alternatiba al da?

Zer elikadura-eredu dira pertsonen bizitzarako eta planetaren iraunkortasunerako onuragarriagoak?



2. urratsa. Informazioa bilatzea eta aukeratzea

Zer jakin behar dugu?

Biologia eta Geologia

Elikagaien ezaugarriak (elikagaien sailkapena, nutriente motak, funtzioak, elikagaien eraldaketak...)

Zeintzuk dira elikagai osasungarri edo dieta orekatu baten ezaugarriak? Zer dira nutrizio-profilak eta zertarako balio dute? Eraginik al dute etiketatzearen eta publizitatearen inguruko arauetan?

Bioteknologia (Genetikoki Eraldatutako Organismoak, pestizidak, herbizidak, ongarririk...). Etorkizuneko elikadura, joerak, arazoak...

Nekazaritza industrial konbentzionalak errendimendu handiko haziak eta ongarririk behar ditu hazkuntza arin bat lortzeko eta pestizidak eta herbizidak behar ditu laboreak izurrien eta gaixotasunen aurrean babesteko. Zer dira Genetikoki Eraldatutako Organismoak (GEO)? Gauza bera al dira GEOak eta transgenikoak? Nortzuk kontrolatzen dituzte haziak, noren esku daude? Hazi industrialen ekoizpen-sistemak bioaniztasuna bermatzen al du? Zentzuk dira pestizidak eta ongarririk kimikoak modu intentsiboan erabiltzeak lurrian eta ekosistemetan dituen ondorioak?

Alternatibak, dieta osasungarriak

3. irudia. Elikadura-triangela




Iturria: <https://www.gezondleven.be/files/voeding/Healthy-Living-2017-Food-Triangle.pdf>

UNITATE DIDAKTIKOA: Azukrea, gozo-garratza.

UNITATE DIDAKTIKOA: Nork ematen digu jaten? Gure osasuna eta planetarena multinazionalen eskuetan (Batez ere 2. Uda: Zeintzuk dira osasuntsu egoten laguntzen diguten elikagaiak eta zeintzuk gaixotzen gaituzte? Eta nutrizio-profilei buruzko ariketak).

- ▶ Merkatu-nekazaritza. Nekazariak eredu agroindustrialaren menpe.
- ▶ Elikadura burujabetza. Nekazariak eredu agroekologikoaren menpe.
- ▶ Ekonomia lineala. Zer da?
- ▶ Ekonomia zirkularra. Zer da? Nola artikulatzen du erauzketa-ekoizpen/eraldaketa-banaketa-kontsumo-hondakin zikloa?
- ▶ Nolakoa zen elikadura eredu agroindustrialia hedatu aurretik?
- ▶ Tokiko-global ikuspegia. Herrialde pobretuen eta aberastuen arteko lotura sozial eta ekonomikoak elikadurari dagokionez.
- ▶ Zeintzuk dira emakumeek nekazaritza-ekoizpenean betetzen dituzten/bete izan dituzten rolak? Eta etxeko/familiaren elikaduran? Eredu ekitatiboagoak eta ardurakideagoak lortzeko bidean al gaude?
- ▶ Eredu bien ondorio sozialak honako hauei dagokienez: lurrak lortzea, lekualdatzeak eta migrazioak, generoko inpaktuak, lan-baldintzak, bizitza duina, gosea, obesitatea.
- ▶ Eradu batak eta bestean ingurumenean dituen ondorioak.

4. irudia. Nola sortzen da nekazaritza-industria?



Iturria: Egilea bera.

UNITATE DIDAKTIKOA: Nork ematen digu jaten? Gure osasuna eta planetarena multinazionalen eskuetan (Batez ere 1. UDa: Zergatik daude gosea eta obesitatea munduan?; eta Zergatik jaten dugu hain txarto? 3. UDko 3.5 Jarduera).

JARDUERA: Emakume baserritarren bizi-historia.

UNITATE DIDAKTIKOA: Lanak banatzea: ardurakidetzeta.

Gaztelania eta Literatura

Irakurrizko ulermena. Publizitate-hizkuntza. Elikagaien publizitatea (janari lasterra, gozokiak, elikagai dietetikoak...).

5. irudia. Elikagaien etiketatzea



Iturria: Egilea bera.

(Ikus "Gezur ustela" kanpaina: <https://justiciaalimentaria.org/mentira-podrida#top>)

Idatzizko adierazmena eta ahozko komunikazioa. Ikus-entzunezko hizkuntza (gidoi narratiboak eta teknikoak, ekoizpena, edizioa, emisioa). Elikadura osasungarria.

Diskurtso etikoak eta estetikoak.

- ▶ Nola eragiten dute publizitate-meziek gure buruaren irudia eratzeko, gure gorputzak hautemateko moduan, edertasun hartzeko dugun horren karakterizazioan?
- ▶ Nola lotzen ditu publizitateak elikagai jakin batzuen kontsumoa osasunarekin eta edertasunarekin?
- ▶ Zer irakurketa egin dezakegu genero-ikuspegi edo ikuspegi feminista batetik?

6. irudia. Bloga komunikazio-baliabide bezala



Iturria: Egilea bera.


UNITATE DIDAKTIKOA: Publizitatea gara

UNITATE DIDAKTIKOA: Nork ematen digu jaten? Gure osasuna eta planetarena multinazionalen eskuetan (Batez ere 3. UDa: Zergatik jaten dugu hain txarto?).

Gorputz-Hezkuntza

- ▶ Elikadura/nutrizioa/osasuna harremana. Jarduera fisikoaren papera eta nutrizio-beharrak ezaugarrien arabera (adina, sexua, eguneroko jarduera, aniztasun funtzionala...).
- ▶ Kirola, elikadura, osasuna. Kontsumo-gizarteei lotutako elikadura-ereduak aztertzea (dietak, bitamina-gehigarriak, nutrizio-pres-takin industrialak, prestakin farmakologikoak...). Horiek elikadura osangarri eta agroekologiko baten ekarpenekin alderatzea.
- ▶ Gorputzaren kultura, edertasun/gorputz osasuntsu kontzeptuari lotutako premia estetikoak...

7. irudia. Film laburren lanketa



Iturria: Bartzelonako Lestonnac eskolako 4. DBHko ikasleek egindako bideoaren fotograma bat (2016-2017).
<https://vimeo.com/221597717>.

UNITATE DIDAKTIKOA:

Zori(txarreko) erruleta

Zer iturri mota erabil dezakegu?

- ▶ Testuak, Artikuluak, Dokumentuak
- ▶ Bideoak / Filmak / Film laburrak / Dokumentalak...
- ▶ Blogak / Web orriak / Atariak
- ▶ Sare sozialak (Facebook, Twitter, Instagram, Pinterest, Youtube...)
- ▶ Wikipedia
- ▶ Datu estatistikoak (Taulak, Grafikoak...)
- ▶ Irudiak, Argazkiak, Kartelak
- ▶ Mapak, Planoak
- ▶ Ahozko testigantzak

Non aurki ditzakegu?

- ▶ Liburutegiak
- ▶ Internet
- ▶ Prentsa
- ▶ Elkartek, GGKEak, Gizarte-mugimenduak, Plataformak eta Hainbat kolektibo
- ▶ Erakunde publikoak

Informazioa biltzeko, hainbat iturri ditugu. Interesgarria izan daiteke irakasleek informazioa aurkezteko moduari buruzko hausnarketa txiki bat proposatzea eta iturri horiek egiaztatu beharra azpimarratzea -batez ere, egoera jakin bat interpretatzen duten iturriez ari bagara, kasu honetan elikadurari, elikadura-sistemei eta beren gizarte- eta ingurumen-ondorioei dagokiona-. Horretarako, irakasleek hegemonikoak ez diren ikuspegiak eskaintzen dituzten hedabide ez konbentzionalen zerrenda eman dezakete. Asko sakondu gabe, hona hemen zenbait erreferentzia:

- ▶ ATTAC TV: <http://www.attac.tv/>
- ▶ Ekologistak martxan: <https://www.ekologistakmartxan.org/es/>
- ▶ REAS Euskadi: <https://www.economiasolidaria.org/eu/reas-euskadi>
- ▶ Alimentación: <https://www.alimentacion.net/>
- ▶ Justicia Alimentaria: <https://justiciaalimentaria.org/>
- ▶ EHNE. Euskal Herriko Nekazarien Elkartasuna: <http://www.ehne.eus>
- ▶ Elikaherria. Elikadura Burujabetza: <https://www.elikaherria.eus/category/elikadura-burujabetza-2/?lang=es>

3. urratsa. Informazioaren sistematizazioa

8. irudia. Fitxategia



Iturria: Egilea bera.

Fitxategi bat sortzea

Asmoa talde txikietako kide ba-koitzak topatu eta kontsultatu duen informazioa sistematizatzea da, gainontzeko kideekin partekatu ahal izateko.

Horretarako, iturri guztiak eta bildutako dokumentazio guztia fitxen bitartez antolatu beharra dago; izan ere, horiek erraz kontsulta daitezke prozesuaren hurrengo faseari ekiteko.

Fitxak oinarrizko datuak izango ditu, beharrezkoa denean dokumentua (testua edo ikus-entzunezkoa) berreskuratuta ahal izateko.

Irakasleek datu-base bezala erabil daitezkeen aplikazioen batean fitxa horiek iraultzea komeni den erabakiko dute, gelako talde guztien eskura egon daitezen.

4. urratsa. Informazioa aztertzea

Oinarrizko kontzeptuak

Behin behar den informazio guztia bilduta eta sistematizatuta, azterketa hasi baino lehen, zenbait kontzeptu argitzea proposatzen dugu:

Lan produktiboa • Lan erreproduktiboa
 Lanaren sexu-banaketa • berdintasuna/Ekitatea • Zaintza-lana
 Nekazaritza intentsiboa • Nekazaritza estentsiboa
 Nekazariak • Baserritarrak
 Hazi industrialak eta transgenikoak • Hazi tradizionalak eta tokiko barietateak
 Ongarri kimikoak • Ongarri naturalak
 Pestizida kimikoak • Izurriteak kontrolatzeko metodo natural alternatiboak
 Monolaborantza • Polilaborantza

Zer diote iturriek? Informazioa antolatzea

Hau da ikerketa-prozesuan taldeek bildu duten informazio baliagarria ateratzeko eta lotzeko momentua. Horren helburua honako hauek hobeto ulertzea da: elikaduraren inguruko arazoak, elikadura-ereduak, ekoizpen-banaketa-kontsumo sistemak eta horiek pertsonen eta planetaren osasunean eta bizitzan dituzten ondorioak -ez indibidualak bakarrik, baizik eta sozialak, eskubidekoak, generokoak, etab...-.

Horretarako, ikasleek idatzizko zein ikus-entzunezko dokumentuetatik hartutako informazioa aztertzekeo lagungarriak izan daitezkeen bi fitxa aurkezten ditugu.

9. irudia. Idatzizko testuen azterketa



Dokumentuaren irakurketa arretatsua

- 1. irakurketa, testu osoarena
- 2. irakurketa kontzeptu eta/edo hitz berriak identifikatzeko. Esanahiak berriro bilatzea
- 3. irakurketa ideia nagusiak identifikatzeko eta azpimarratzeko

Kontzeptu-mapa edo -eskema egitea

Beste testu batzuekin alderatzea eta gai beraren inguruko interpretazio desberdinak biltzea

Lantzen ari garen gaiaren azalpen-/ulertze-egitura bat sortzea

- Sarrera (gaia aurkeztea)
- Deskribapena (adibideak ematen dituzten datuak eta egoerak)
- Kausak (testuinguru historikoa aztertzea)
- Ondorioak
- Konklusioak (azalpenezko interpretazioak; berezko ekarpenak)

Iturria: Egilea bera.

IKUS-ENTZUNEZKOAK

10. irudia. Ikus-entzunezko testuen azterketa



Iturria: Egilea bera.

Zer dakigu gaiari buruz? Zer interpretazio eman dezakegu? Zeintzuk dira ondorio nagusiak?

Fase honetan, garrantzitsua da ezagutza-eremu desberdinetan ikasitakoaren artean erlazioak sortzea; izan ere, horrela, ikasleak gaiari buruzko interpretazio konplexuak eta sakonak emateko gai izango dira. Leku desberdinetako nekazariek partekatzen dituzten arazoak identifikatu ahal izango dituzte, baita ekoizpen-eredu desberdinek -agroindustrialak eta agroekologikoak- munduko hainbat lekutan emakumeen eta gizonen bizitzan sortzen dituzten ondorioak, planetan eta ekosistemetan sortzen dituzten ondorioak eta bioaniztasuna kontserbatzean/leheneratzean duten eragina ere.

Taldeek ikertutako gaiak berreskuratzen ditugu; ikuspegi horren arabera antolatu beharko baitituzte informazio- eta azterketa-prozesuaren ondorio nagusiak.

Elikadura burujabetzaren eredu eredu agroindustrialaren alternatiba al da?

Ikasleek, beraz, alderatu ditugun eredu bietako bakoitzaren ezaugarri nagusiak identifikatu behar dituzte.

Nekazaritza industrial globalizazio neoliberalaren markoan.

Merkatu-nekazaritza.

- ▶ Korporazio eta multinazional handiak elikaduraren negozioan. Bioteknologia, errendimendu handiko haziak, ongariak eta pestizidak.
- ▶ Inpaktu soziala: dependentsia; desberdintasuna eta pobrezia arazoak; lekualdatzeak eta migrazioak.
- ▶ Inpaktua emakumeen bizitzan: beraien ekarpenei eta ezagutzei ez ikusia egitea, eskubide-desberdintasuna (adibidez, lurraren jabetzan).
- ▶ Hiperkontsumoaren kultura, ikuskizunaren kultura, gorputzak estetikara konbentzional generizatzailearen menpe jartzen dituen kultura.
- ▶ Bizi-estiloak, zabor-jana, janari lasterra.
- ▶ Inpaktu ekologikoa: berotze globala, deforestazioa, energia fosilak agortzea, hondakin gehiago sortzea.

Elikadura burujabetza, gizarte bidezkoagoak eta ekitatiboagoak lortzeko alternatiba agroekologikoa.

- ▶ Ekosistemen ikuspegi integrala, osagarri soziala ere kontuan hartzen duena.
- ▶ Nekazaritza-sistema iraunkorrak. Elikagai osasungarriak ekoiztea.
- ▶ Erresilientzia. Labore-txandaketa, baliabide naturalak, bioaniztasuna, lurra birsortzea...
- ▶ Landa-eremua berpiztea. Lurraldea kontrolatze, nekazaritza- edo abeltzaintza-ustiategi txikiak.
- ▶ Gizarte justizia. Baldintza duinak nekazariarentzat, jakintzak eta eza-gutzak berreskuratzea eta aintzat hartzea, komunitatea sendotzea, parte-hartzea, sareak eta aliantzak.
- ▶ Genero-ekitate. Emakumeen papera landa-eremuan, elikagaien ekoizpenean, pertsonen zaintzan, etxeko elikaduran eta kontsumoan.
- ▶ Merkaturatze zuzena, tokiko merkatuak, gertuko nekazaritza, tokiko eta sasoiko produktuak.
- ▶ Kontsumo bidezkoa eta berriztagarria.
- ▶ Energia berriztagarriak, hondakinak murriztea, birziklatzea.

Zer elikadura-eredu da onuragarriagoa pertsonen bizitzarako eta planetaren iraunkortasunerako?


Galdera horri erantzuteko, ondorioetan eredu bat eta ez bestea aukeratu izanaren arrazoiak argudiatu beharko ditugu, honako irizpide hauek kontuan hartuz:

- ▶ Osasunean dituen ondorioak
- ▶ Pertsonen eta komunitateen (ekoizleen eta kontsumitzaileen) bizitzan dituen ondorioak.
- ▶ Gizarte-justizia eta genero-ekitate irizpideak.
- ▶ Ingurumen-iraunkortasunean dituen ondorioak.

Taldeek lana aurkezteko erabiliko dituzten komunikazio-gailuak prestatzeko momentua heldu da. Elikadura osasungarriaren, genero-ikuspegidun elikadura burujabetzaren eta gizarte bidezkoak, ekitatiboak eta zaintzaileak sortzeko behar den gizarte-aldaketaren aldeko eragin-sortzaile/*influencer* bihurtzea proposatu zaienez, lehenik, bideoak zein sare sozialetan (Instagram, Youtube, Facebook, Twitter...) eskegiko dituzten erabaki beharko dute. Nolanahi ere, gelaren kontu edo kanal bat sortzea komeni da; horretara lan guztiak irauliko dira.

Prestaketa. Komunikazio fase hori ere proposamenak sustatzen duen Hezkuntza kritikoaren printzipioetan oinarritzeko, bideoak guztion artean egitea komeni da, bai bideoklip baten ekoizpena eskatzen dituen lan guztiei dagokienez, bai film laburraren protagonismoari dagokionez. Hala, erreproduzituko den testua taldeko kide guztien artean banatzeko aukera dago. Aitzitik, pertsona bakarreko planoak grabatu nahi izatekotan, hainbat klip egin daitezke, serie bat osatuz, taldeko kide bakoitzak kapsula baten protagonista izateko aukera izan dezan.

Halaber, bideo bakoitzerako **gidoi** bat izan beharko dute, oinarritzko eskema honen arabera:

- 
- ▶ **Sarrera** (arazoa aurkeztea)
 - ▶ **Garapena** (testuingurua eta zergatiak laburki azaltzea)
 - ▶ **Ondorioak** (zeintzuk dira pertsonengan, komunitateetan eta planetan dituzten ondorioak)
 - ▶ **Alternatibak** (zer egin ditzakete pertsonak, banaka eta elkarrekin, elikadura-eredu bidezkoak, osasungarriak eta iraunkorrak lortzeko bidean aurrera egiteko)

Lantaldeentzako proposamenak:

1. Gaia aurkeztu: "Gaur elikadura osasungarriari buruz hitz egingo dugu"; gero interesa pizten duen galdera bat egin: "Ba al dakizu zer jaten duzun?". Hona hemen beste adibide batzuk:

- ▶ "Elikagai prozesatuei eta ultraprozesatuei buruz hitz egingo dugu". Ba al zenekiten "Azukre finduen, koipe osasungaitzen eta gatzaren kontsumoa etengabe handitu dela azken 30 urteotan eta osagai horien %70 elikagai prozesatuetan "ezkutatzen" direla"? Iturria: https://www.eldiario.es/tribunaabierta/alimentacion-enferma_6_750035016.html
- ▶ "Ba al dakizue zer elikadura motak gaixotzen gaituen?" (koipe, azukre eta gatz gehiegi). "Espainiako biztanleen %44k ezin du elikadura osasungarria izan horren kostu altuagatik; eta elikadura desegokiari lotutako gaixotasunak, hala nola, diabetesa, minbizia eta arazo kardiobaskularrak Espainiako osasun arazo nagusia dira". Iturria: https://www.eldiario.es/tribunaabierta/alimentacion-enferma_6_750035016.html
- ▶ "Zergatik dago gero eta pertsona obeso gehiago?" " The New England Journal of Medicine aldizkarian argitaratutako ikerketa baten arabera, munduan, 2.000 pertsonak baino gehiagok dituzte obesitateari eta gehiegizko pisuari lotutako osasun arazoak". Iturria: <https://www.agenciasinc.es/Noticias/Una-de-cada-tres-personas-en-el-mundo-tiene-obesidad-o-sobrepeso>

2. Jarraian, arazoa azaldu (datu deigarriak erabil ditzakezue), baita horrek testuinguru zabalago batekin duen lotura edo aldatu nahi dugun egoera horren kausak ere, besteak beste.

3. Ondorioak. Landutako gaia pertsonengan-gizartean dituen ondorioak argi azaldu behar dituzue (honako hauei dagokienez: osasuna, genero-desberdintasuna, inpaktu ekonomikoa, manipulazioa, gure elikaduraren gaineko kontrol falta, menpekotasuna, lekualdatze behartuak...), baita ekosistemetan eta planetan ere (bioaniztasuna galtzea, lurren narriadura, kutsadura...).

4. Alternatibak eskaini. Bideoaren ikusleen esku dauden irtenbideak azaldu, elikadura- eta kontsumo-ohitura aldaketak proposa itzazue... Halaber, interesgarria izan daiteke ekintza kolektiboagoak eskaintzea, orokorrean, elikadura burujabetza lortzen lagun diezagukeen edozer (ikastetxean eragitea, kontsumo-taldeak sortzea, tokiko ekoizleei erostea, agroekologia sustatzea, beste pertsona batzuk kontzientziaztea...).

Gidoi teknikoak prestatzeko egitura erraz bat erabiltzea proposatzen dugu:

11. koadroa. Gidoi teknikoak egiteko eskemaren adibidea.

IKUS-ENTZUNEZKOAREN IZENBURUA. GIDOI TEKNIKOAK

1. eszena. Barrualdea – Eguna ____/__/__					
Zkia.	Planoa	Bideoaren deskribapena	Audioaren deskribapena	Etiketak	Iraupena
1	Laburra? Erdikoa? Panoramikoa?	Ikaslerik gabeko gela bat ikusten da. Zakarrontziaren plano laburra; horretan gozoki-eta opil-bilgarriak ikusten dira. X sartzen da eta kezka aurpegia jartzen du.	Hau gertatzen al da zure gelan ere? Hitz egin dezagun jolas-orduetan jaten ditugun hamaiketakoak buruz. Txokolatezko palmerak ala fruta-mazedonia?	#elikagai ultraprozesatuak #elikagai freskoak	45 seg.
2					

KONTUAN HARTZEKOAK

Argi hitz egin eta erritmo bizia mantendu -ez motelegia ez arinegia-. Doinua mezuaren edukira egokitu -sorpresa, zalantza, galdera, harridura, interesa...-.

Erabiltzen ditugun kontzeptu teknikoak buruzko azalpen labur eta argiak eman.

Kontuz, hizkuntzaren erabilerarekin, hizkuntza inklusiboa eta ez sexista erabili. Genero-ikuspegia bistaratu: zer nolako eragina du kontatzen ari garen horrek emakumeengan, zer egin dezakegu sistema ekitatiboagoak sustatzeko.

Dekoratua zaindu. Orokorrean plano labur edo erdikoak erabiltzen direnean ere, dekoratu erakargarriak erabiltzea -lantzen ari garen gaiarekin zerikusia dutenak- beti da lagungarria.

Mezua da garrantzitsuena. Horregatik, ez da komeni mugimendu gehiegiren bidez (eskuenak, besoenak...) arreta desbideratzea. Horrek ez du esan nahi jokaera zakar edo serioa izan behar dugunik -izan ere, umorea baliabide ona da- baina ez dugu publikoak distraitu behar, edukia argi eta "zaratarik" gabe hel dadin.



Bideoaren **grabaketa, edizio eta produkzio** fasean, Hezkuntza Plastiko, Ikusizko eta Ikus-entzunezko irakasleen laguntza izatea komeni da.

Behin klipak editatuta, gelako lanak ezagutzera emateko sortu dugun **kontu edo kanalera igotzeko momentua** da. Horretan lagungarriak izango dira edukiei ematen dizkiegun #etiketak eta #hashtagak.

Gainera, horiek ikusten dituzten pertsonak beren iradokizunak uztera animatzea komeni da.

Proposamenean inplikaturako irakasleek eta ikasleek elkarrekin presta dezakete **aurkezpen bat ikastetxean**. Horretara, gainontzeko irakasleez eta ikasleez gain, familiak (deialdia prestatzeko eta hedatzeko Guraso Elkartearen laguntza izan dezakegu) eta proiektuan parte hartu duten gizarte-eragileak gonbidatzea komeni da.

Halaber, film laburretariko batzuk **film labor- edo dokumental-jaialdiren** batera aurkeztea ere interesgarria izan daiteke.

- ▶ **Evennial.** . Zinemaldiak eta ikus-entzunezko, argazki-, kultura- edo arte-lehiaketak antolatzeko, ezagutzera emateko eta kudeatzeko plataforma. <https://evennial.com/es/festivals>
- ▶ **Festival de cine lento.** Guadalajaran ospatzen den zinemaldi bat da. Contrapicado Films eta El Rincon Lento ekimenek 2011an sortu zuten hori, jendea irudien bitartez beren ideiak transmititzera animatzeko eta publikoari bestelako zine bat ikusteko aukera emateko helburuz. Horren ezaugarri nagusia "geldotasunaren" edo "bizitza geldoaren" ideia da, hau da, gizabanakoek beren bizi-kalitatea hobe dezaten, beren denbora kontrola dezaten eta gaur egungo ekonomia- eta gizarte-sistemeekin kritikoak izan daitezen laguntzen duten ekintza multzo bat (Ingurumena eta pertsonak errespetatzea, kontsumo arduratsua, kultura babestea, desazkundea, bizitza eta aisia alternatiboa, lankidetzeta, elikadura burujabetza, ekonomia soziala...).
- <http://contrapicado.es/festival-de-cine-lento/>
- ▶ **Cortos en femenino.** Emakumeek egindako film laburrak <https://cortosenfemenino.net>
- ▶ **TRAMA.** Emakumeek egindako zine-, bideo- eta multimedia-erakustaldien eta -jaialdien koordinakundea. <https://tramabcn.wordpress.com/>

GARRANTZITSUA. Momentu ona izan daiteke honako hau zundatzeko: zein neurritan dago prest ikastetxea epe ertain eta luzean elikadura burujabetzaren aldeko konpromisoak hartzeko; adibidez, kafetegian elikagai osasungarriak sartzeko, auzoari begira sentsibilizazio-kanpaina bat burutzeko; eskola-ortu bat martxan jartzeko...



EBALUAZIOA

Prozesuan ardaztua, parte hartzekoa eta globala. Ezagutzak -kognitiboak, emozionalak, prozedurazkoak-ulertzea/eskuratzea/barneratzea baloratzeaz gain, subjektu kritiko eraldatzaileak sortzen laguntzen duten gaitasunak garatzera bideratzen dena: erantzukizuna, kontzientzia kritikoa, ikuspegi feminista, ekitatearekiko eta gizarte-justiziarekiko konpromisoa bizitzaren iraunkortasunaren alde.


Hala, 5 errubrika hauek proposatzen ditugu, Proiektuetan Oinarritutako Ikaskuntzaren metodologia aplikatzean sortzen den ikasketa-prozesuaren dimentsio desberdinak ebaluatzeko:

- ▶ Generoko behaketari buruzko errubrika. Jantz itzan/k betaurreko lilak!!!
- ▶ Oinarrizko kompetentzien ebaluazio-errubrika
- ▶ Talde-lanari buruzko ebaluazio-errubrika
- ▶ Edukien ebaluazio-errubrika
- ▶ Ikasleek ebaluatzen dute

12. koadroa. Genero behaketari buruzko errubrika

Jantz itzan/k
betaurreko lilak!!!

Zaintza-ikuspegia
Nesken ahalduntzea
Hizkuntza inklusiboa, ez sexista
Ezagutza ez androzentrikoa
Botere-harreman ez autoritarioak
Eskubide-kontzientzia eta -praktika



	BIKAIN Genero-ekitibitatea eta bizikidetzaren onak	OSO ONGI Harreman ekitatiboak izateko ahalmen handia	NAHIKO Generoaren eragina izan dezaketena tentsioak	GUTXI Genero- desberdintasuna
Nola sortu dira taldeak? Talde bereizialak ala mistoak sortzeko joera dute?	Taldea orekatuak sortzen dituzte.	Taldea gehienak mistoak dira.	Orokorrean bereizialak, batzuk mistoak.	Erabat bereizialak.
Nola banatzen dira rolak taldeen barruan?	Rolak txandakatzan dira pertsona guztiek gaitasun desberdinak landu ditzaten (lidergoa, ordezkari-tza, komunikazioa...).	Taldea gehienetan eginkizunak eta rolak ekitiboki banatu dira, baina ez guztietan.	Taldea gehienetan banaketak generoko joera du.	Neskek laguntza eta bitartekaritza rolak hartzan dituzte, lidergoa edo ordezkari-tza baino gehiago.
Taldeetako zenbat bozeramaile dira neskak?	%60 baino gehiago.	%60 inguru.	%30 inguru.	Bat ere ez.
Lantaldeetan garrantzi bera ematen zaie nesken eta mutilen behar eta interesei?	Nesken eta mutilen beharrak eta interesak entzuten, baloratzen eta aintzat hartzen dira, garatzen ari den lanarekin duten koherenziaren arabera eta inolako desberdintasunik gabe generoari dagokionez.	Nesken eta mutilen beharrak eta interesak, ustez, kasu bera egiten zaie, baina amaierako lanetan mutilen iritziek presentzia handiagoa dute. Beraz, inplizituki, nesken ekarpenak ez dira berdinduz baloratzen.	Nesken behar eta interesei, ustez kasu egiten zaie, baina oso presentzia gutxi dute amaierako lanean.	Nesken beharrak eta interesak bigarren maila batean geratzen dira, beraien ekarpenak gutxiesten dituzte edo ez zaizkie behar adina garrantzia ematen talde- lanaren garapenean.
Hitza kentzen diote elkarri hitz egiterakoan?	Hitza errespetatzen dute eta besteak entzuten diete.	la ez diote hitza elkarri kendu eta hori gertatu denean ez da generoko arrazoiengatik izan.	Batzuetan hitza kendu diote elkarri eta batez ere neskek kendu diete.	Etengabe kendu diote hitza elkarri eta batez ere neskek.

	BIKAIN Genero-ekitate eta bizikidetzatza ona	OSO ONGI Harreman ekitatiboak izateko ahalmen handia	NAHIKO Generoaren eragina izan dezaketen tentsioak	GUTXI Genero-desberdintasuna
Gertatu izan al da genero arrazoiengatik gatazkarik edo tentsiorik?	Taldeak harmonia ona du eta genero arrazoiengatik sor daitezkeen gatazkek erregulatze aldera modu positiboan esku hartzeko gaitasuna garatu du.	la ez da tentsiorik egon eta taldeak normaltasunez konpondu ditu izan direnak.	Tentsioak izan dira zentzu horretan, baina puntuak izan dira edo ez da argi identifikatzen generoaren lotuta dauden.	Errespetu faltak, gutxiespenak eta diskriminazioak eman dira nesken edo beste edozein pertsonaren aurka, itxurari edo generoko estereotipoei lotuta ("maritxu", "mari-mutil", lodia edo argala izatea", etab.).
Edukiak genero-ikuspegiz landu dituzte?	Emakumeek elikaduran duten rola (lan produktiboa, erreproduktiboa, zaintzakoa eta komunitarioa) bistaritzen duten informazio-iturriak erabili beharraz jabetzen dira. Elikadura-ereduen egokitasuna baloratzean horietako bakoitzak emakumeengan duen eragina (positiboa/negatiboa) kontuan hartu dute, baita gizonen eta emakumeen artean ekitate sustatzeko duten ahalmena ere.	la beti jabetu dira emakumeek elikaduran duten rola (lan produktiboa, erreproduktiboa, zaintzakoa eta komunitarioa) bistaritzen duten informazio-iturriak erabili beharraz. Elikadura-ereduen egokitasuna baloratzean horietako bakoitzak emakumeengan duen eragina (positiboa/negatiboa) kontuan hartu dute.	Zenbait kasutan jabetu dira emakumeek elikaduran duten rola (lan produktiboa, erreproduktiboa, zaintzakoa eta komunitarioa) bistaritzen duten informazio-iturriak erabili beharraz. Batzuetan, elikadura-eredu bakoitzak emakumeengan duen eragina (positiboa/negatiboa) kontuan hartu dute.	Ez dira ia inoiz jabetzen emakumeek elikaduran duten rola (lan produktiboa, erreproduktiboa, zaintzakoa eta komunitarioa) bistaritzen duten informazio-iturriak erabili beharraz. Ez dira elikadura-eredu bakoitzak emakumeengan duen eragina (positiboa/negatiboa) seinaltzeko gai.

Iturria: Egilea bera.

13. koadroa. Oinarrizko kompetentzien ebaluazio-errubrika

Kompetentzia eskuratzeko-maila				
Kompetentziak Ikasketa estandarrik	BIKAIN Lortzen du	OSO ONGI Ez guztiz	NAHIKO Zaitasunez	GUTXI Ez du lortzen
Hizkuntza-komunikaziorako kompetentzia Modu kritiko eta eraginkor batean komunikatzen ikasten du, ideia sortuz, ezagutza egituratuz, diskurtsoari eta bere ekintza eta lanei koherentzia eta kohesioa emanez.	Diskurtso argi, egituratu, zehatz eta interesgarria egiteko gai da eta modu kritiko eta eraginkor batean komunikatzen du.	Diskurtso egituratua egiteko gai da eta modu egokian komunikatzen du.	Diskurtsoan ezagutzak hutsuneak antzematen dira eta egitura pixka bat nahasia da. Komunikazioa hobetzeko modukoa da.	Diskurtsoa kaotikoa da eta ez du egitura logikorik. Komunikazioa ez da eraginkorra.
Kompetentzia matematikoa eta zientzia eta teknologiarako oinarrizko kompetentziak. Elikadurari lotutako aurrerapauso zientifikoei buruzko ikuspegi kritikoa garatzen du, eredu agroindustrialen eta eredu agroekologikoen arteko hautuetan erabaki arrazoituak hartzeko.	Beti gizarte- eta ingurumen-justizia irizpide etikoak txertatzen ditu eta, horietan oinarrituz, aurrerapauso zientifiko eta teknologikoak balioztatzen ditu, horiek bizitza, pertsonak eta planeta zaintzeko eta babesteko duten ahalmenaren arabera.	Gehienetan gizarte- eta ingurumen-justizia irizpide etikoak txertatzen ditu eta, horietan oinarrituz, aurrerapauso zientifiko eta teknologikoak balioztatzen ditu, horiek bizitza, pertsonak eta planeta zaintzeko eta babesteko duten ahalmenaren arabera.	Batzuetan gizarte- eta ingurumen-justizia irizpide etikoak txertatzen ditu eta, horietan oinarrituz, aurrerapauso zientifiko eta teknologikoak balioztatzen ere, horiek bizitza, pertsonak eta planeta zaintzeko eta babesteko duten ahalmenaren arabera.	Ez ditu gizarte- eta ingurumen-justizia irizpide etikoak txertatzen, ezta, horietan oinarrituz, aurrerapauso zientifiko eta teknologikoak balioztatzen ere, horiek bizitza, pertsonak eta planeta zaintzeko eta babesteko duten ahalmenaren arabera.

Kompetentzia eskuritze-maila				
Kompetentziak Ikasketa estandarrik	BIKAIN Lortzen du	OSO ONGI Ez guztiz	NAHIKO Zailtasunez	GUTXI Ez du lortzen
Kompetentzia digitala Genero-ikuspegidun elikadura burujabetzari buruzko eduki digitalak sortzen ditu, horietan elkarlanean egindako proiektuen emaitzak bilduz.	Ikus-entzunezko materialak sortzen ditu, konplexuak, originalak eta berritzaileak direnak eta elikaduraren problematika eta alternatibak ulertzen laguntzen dutenak. Ikus-entzunezko hainbat grabaketa-teknika konbinatzen ditu eta IKT edo software-tresnak txertatzen ditu.	Ikus-entzunezko material originalak sortzen ditu, elikaduraren arloko arazo eta alternatiba nagusiak ezagutzera ematen dituztenak. Ikus-entzunezko zenbait grabaketa-teknika konbinatzen ditu eta IKT eta software-tresna batzuk txertatzen ditu.	Ikus-entzunezko material originalak sortzen ditu, elikaduraren arloko zenbait arazo eta alternatiba dituztenak. Ediziorako eta zabalkunderako IKT errazak erabiltzen ditu.	Ikus-entzunezko material soilak sortzen ditu, gaia modu desegituratuan lantzen dituztenak. Ediziorako eta hedapenerako IKT errazak erabiltzeko zailtasunak ditu.
Kompetentzia sozial eta zibikoak Elikaduraren problematika ikuspegi ekosistemiko batetik lantzen du, tokiko-global ikuspegia erabiliz eta gizarte- eta ingurumen-justiziaren printzipioetan oinarrituz. Beharrezkoak diren aldaketak identifikatzen ditu; indibidualak (kontsumo- eta elikadura-jarraitzaileak aldatzeko) eta kolektiboak (eremu desberdinetan herritartasun kritikoa sortzeko eta sentibilizatzeko ekintzekin implikatzen laguntzen duten ekimenak: familia, eskolan, udalerrian...).	Honetarako gai da: elikaduraren problematika diziplinarteko ikuspegi konplexu batetik lantzeko, gaur egungo eredu agroindustrialaren ondorioak ebaluatzeko, eredu agroekologikoa gizarte- eta ingurumen-justizia alternatiba bezala ulertzeko eta genero-ikuspegidun elikadura burujabetzari lortzeko beharrezkoak diren aldaketa indibidual eta kolektiboekin konprometitzeko.	Honetarako gai da: diziplinarteko ezagutzak erabiliz, elikaduraren problematika aztertzeko; gaur egungo eredu agroindustrialaren ondorio latzenak aipatzeko, eredu agroekologikoa gizarte- eta ingurumen-justizia alternatiba bezala hartzeko; eta genero-ikuspegidun elikadura burujabetzari lortzeko beharrezkoak diren aldaketa indibidual eta kolektiboekin konprometitzeko.	Elikaduraren problematikari buruzko ezagutzak ditu, diziplinarteko ikuspegi batetik. Eredu agroindustrialaren ondorio negatiboaren irismena ulertzeko. Ez du genero-ikuspegidun elikadura burujabetzari lortzeko beharrezkoak diren aldaketekin konpromiso sendoa hartzen.	Zailtasunak ditu elikaduraren problematika modu egituratuan aurkezteko eta eredu agroindustrialaren ondorio negatiboaren irismena ulertzeko. Ez du genero-ikuspegidun elikadura burujabetzari lortzeko beharrezkoak diren aldaketekin konpromiso sendoa hartzen.

Kompetentzia eskuratzeko-maila				
BIKAIN Lortzen du	OSO ONGI Ez guztiz	NAHIKO Zailtasunez	GUTXI Ez du lortzen	
<p>Kompetentziak Ikasketa estandarrek</p> <p>Ekimen-sena eta espiritu ekintzailea Ideiak ekintza bihurtzea, modu errealista eta sormenezko batean eta testuinguruaren premiei egokitu.</p>	<p>Genero-ikuspegidun elikadura burujabetzaren ildotik, proiektu kolaboratiboak (sentsibilizazioak, eraginekoak, ekoizpenekoak,...) asmatzeko, planifikatzeko eta gauzatzeko gai da, elikaduraren arloko arazoetariko bati erantzuna emateko helburuz.</p>	<p>Proiektu kolaboratibo bat marxan jartzeko lanetan gogoz parte hartu du, elikaduraren problematikari erantzuna emateko.</p>	<p>Batzuetan genero- ikuspegidun elikadura burujabetzaren aldeko zenbait ekintzatan parte hartu du.</p>	<p>Genero-ikuspegidun elikadura burujabetzaren aldeko ekintzak marxan jartzeko ardura gainontzeko kideen esku uzten du, profil baxuko eta konpromiso gutxiko lanak bere gain hartuz.</p>
<p>Kontzientzia eta kultura adierazpenak Genero-ikuspegia modu esplicituan bistaratzea. Ikus-entzunezko produktu bat sortzea; elikadura osasungarri, ekologiko eta kulturalki egokiarekiko konpromisoaren adibide diren emozioen, bizipenen eta ideien adierazpidea eta komunikabidea dena.</p>	<p>Sormenezko eta kalitatezko ikus- entzunezkoak egiteko gai da. Hizkuntza inklusiboa eta ez sexista erabiltzeko gai da. Edukiak genero- ikuspegi bat erabiltz aurkezten ditu eta elikadura osasungarri, ekologiko eta kulturalki egoki baten aldeko alternatibak eskaintzen ditu.</p>	<p>Ikus-entzunezkoak egiteko gai da, hartzailleek elikaduraren problematika uler dezaten laguntzeko beharrezkoak diren guthieneko edukiekin. Hizkuntza inklusiboa eta ez sexista erabiltzeko gai da. Genero-ikuspegia kontuan hartzen du eta elikadura osasungarri, ekologiko eta kulturalki egoki baten aldeko bi ekintza behintzat proposatzen ditu (bata indibiduala eta bestea kolektiboa), edozein pertsonearen esku claudenak.</p>	<p>Elikaduraren arloko arazoekin lotutako edukiren bat lantzen duten ikus-entzunezkoak egiteko gai da. Hizkuntza inklusihoa eta ez sexista erabiltzen du. Elikadura osasungarriaren aldeko ekintzaren bat proposatzen du.</p>	<p>Arazaoren inguruan ikus- entzunezko bat egiteko gai da, baina ez du edukia ondo egituratzen. Ez du kontuan hartzen genero-ikuspegia eta ez du hizkuntza inklusihoa eta ez sexista erabiltzen. Ez du elikadura burujabetzaren aldeko alternatibarik eskaintzen.</p>

Iturria: Egilea bera.

14. koadroa. Talde-lanari buruzko ebaluazio-errubrika

Ikasten ikasteko kompetentzia. Proiektu bidezko lanak eskaintzen duen lankidetzaren eremua honetarako baliatzea: a) parte hartzeko, besteekin harremanak izateko edo komunikazio eraginkorrerako gaitasunak garatzeko norberak dituen aukerak esploratzea; eta b) taldekideek erabiltzen dituzten ikasketa-estrategia desberdinak behatzea eta horietatik ikastea, batez ere genero-ikuspegi-dun elikadura burujabetzari lotutako ikerketa-lanetan (informazioa biltzea, iturriak kontrastatzea, azterketa, elkarrizketak, bisitak, azterketa-, sintesi- eta komunikazio-gaitasuna).

	OSO GAI	GAI	HOBE DEZAKE	EZGAI
Talde-lanagatik gogobetetzea	Gogobetetze-maila altua adierazi du taldean lan egin ahal izateagatik eta proiektua elkarlanean egiteagatik.	Talde-lanean eroso sentitu da eta elkarlanean egindako proiektuan parte hartu ahal izan du.	Gogo handirik gabe baina modu egokian parte hartu du elkarlanean egindako proiektuan.	Ez da eroso sentitu taldean lan egiten.
Talde-lanak egitea	Jarrera positiboa eta proaktiboa izan du, taldeari bere gaitasuna eskainiz eta taldekideengandik ikasiz. Lan-giro egokia sortzen lagundu du eta taldekideen kritikak eta gomendioak onartu ditu.	Jarrera aktiboa izan du eta egokitu zaizkion lanetaz arduratu da. Lan-giro egokia sortzen lagundu ohi du eta taldekideen kritika eta gomendio gehienak onartu ditu.	Bere eginkizunak bete ditu, gutxienez lana eginez baina gehiago inplikatu gabe. Ez du lan-giro egokia sortzen lagundu eta, orokorrean, ez ditu taldekideen kritikak eta gomendioak onartu.	Ez ditu beti egokitutako lanak egin, ez denboraren eta ez formaren aldetik. Lan-giro txarra sortzen du; taldekideei kritikak egiten dizkie baina ez ditu beraien kritikak onartzen.
Banakako erantzukizuna	Egokitutako eginkizun guztiak bete ditu. Oso ondo antolatzen ditu lanak eta modu eraginkorrean kudeatzen du denbora.	Eginkizun gehienak bete ditu. Ondo antolatzen ditu lanak eta horiek egiteko denbora.	Proposatutako jardueretako batzuk besterik ez ditu egin. Lan-planifikazioa eta denboraren kudeaketa hobe ditzake.	Ez du jarduerarik egiten. Lan-planifikazioa kaotikoa da eta aurreikusitako denborak ez dira nahikoak.

	OSO GAI	GAI	HOBE DEZAKE	EZGAI
Proiektua aurkeztea eta ikus-entzunezkoak egitea	<p>Aurkeztutako proiektua bikaina da eta edukiak -genero-ikuspegia txertatzen dutenak-diziplinarteko ikuspegi batetik lantzen ditu.</p> <p>Oso modu zehaztean arazoitzen du eredu agroindustriaren aurrean elikadura burujabetza babestera daraman logjika.</p>	<p>Aurkeztutako proiektua oso ona da eta edukiak diziplinarteko ikuspegi batetik lantzen ditu; genero-ikuspegia atal batuetan besterik ez du erabiltzen. Elikadura burujabetza babesteko argudio nahiko ematen ditu.</p> <p>Bideoen gidioia ona da eta ikus-entzunezko errealizazioa argia eta interesgarria.</p>	<p>Aurkeztutako proiektua egokia da eta edukiak diziplinen arabera antolatzen ditu; genero-ikuspegia atal bakar batean lantzen da.</p> <p>Elikadura burujabetza babesteko arrazoi batzuk ematen ditu.</p> <p>Aurkeztutako bideoen gidioia hobe daiteke eta ikus-entzunezko errealizazioa apala da.</p>	<p>Aurkeztutako proiektua nahasia da eta egitura eskasa. Elikadura-ereduen deskribapenean okerrak daude.</p> <p>Bideoak gidoirik gabe egin dira eta ikus-entzunezko emaitza eskasa da.</p>
Parte-hartzea	<p>Landutako gaien inguruan interes handia adierazten du, galdera egokiak egiten ditu, bere iritzia eta hausnarketak partekatzen ditu, gelako eztabaidetan gogoz parte hartzen du, adibidez, eta gelakideen argudioetara irekita dago.</p>	<p>Landutako gaien inguruan interesa adierazten du, bere iritzia eta hausnarketak partekatzen ditu, gelako eztabaidetan gogoz parte hartzen du.</p>	<p>Landutako gaien inguruan nolabaiteko interesa adierazten du, gelako eztabaidetan parte hartzen du bere iritzia edo hausnarketak eskatzen zaizkionean bakarrik.</p>	<p>Oso interes gutxi adierazten du landutako gaien inguruan, bere iritzia eta hausnarketak zailtasunez adierazten ditu eta ezinbestekoa denean bakarrik parte hartzen du gelako eztabaidetan.</p>

	OSO GAI	GAI	HOBE DEZAKE	EZGAI
<p>Jarrera eta balioak</p>	<p>Kritikoagoa da jaso duen informazioari esker. Elikaduraren problematika lantzeko ikuspegi desberdinak baloratzen ditu eta tokiko-global dimentsioa kontuan hartzen du.</p> <p>Kontsumo-ohituren eta gaur egungo osasun-, ingurumen-, ekonomia- eta gizarte-arazoan arteko harremanaz jabetzen da.</p> <p>Elikadura aldatzeko eta ohitura osasungarriagoak eta kontsumo arduratsuagoa izateko gogoia adierazten du.</p> <p>Solidarioa eta enpatikoa da gertuko zein urruneko errealitate eta pertsonekin, baita planetaren kontserbazioarekin ere, kontsumoaren eta ingurumen- eta gizarte-ondorioen arteko lotura ulertzen baitu.</p>	<p>Gero eta kritikoagoa da jaso duen informazioari esker.</p> <p>Aurkeztutako arazoa tokiko-global ikuspegi batean oinarrituz baloratzen du.</p> <p>Gero eta gehiago, kontsumo-ohituren eta gaur egungo osasun-, ingurumen-, ekonomia- eta gizarte-arazoan arteko harremanaz jabetzen da.</p> <p>Elikadura osasungarriagoa eta kontsumo arduratsuagoa izatearren, zenbait aldaketa egiteko gogoia adierazten du.</p> <p>Solidarioa eta enpatikoa da gertuko errealitateekin eta planetaren kontserbazioarekin.</p>	<p>Espiritu kritiko gutxi du, daukan informazioa errepikatzen joera du.</p> <p>Aurkeztutako arazoa bere egunerokoarekin lotutako alderdien arabera bakarrik lantzen du.</p> <p>Kontsumo-ohituren eta gaur egungo osasun-, ingurumen-, ekonomia- eta gizarte-arazoan arteko harremanaz jabetzeko zailtasunak ditu.</p> <p>Elikaduran zenbait aldaketa egiteko prest dago orain arte izandako eredu osasungaitzari eta eutsiezinari uko egin behar ez badio.</p> <p>Ez da oso solidarioa eta enpatikoa aurkeztutako gizarte- eta ingurumen- arazoekin.</p>	<p>Informazio kritikoki aztertzeke zailtasunak ditu.</p> <p>Elikadura arloko arazoan irakurketa partzialak edo loturarik gabekoak egiten ditu.</p> <p>Ez da kontsumo-ohituren eta gaur egungo osasun-, ingurumen-, ekonomia- eta gizarte-arazoan arteko harremanaz jabetzeko gai.</p> <p>Ez dago elikadura osasungarriagoa eta kontsumo arduratsuagoa izateko aldaketarik egiteko prest.</p> <p>Ez da batere solidarioa, ez pertsona txiroekin, ez planetarekin, eta gainera zoritxarreko eta errespeturik gabeko komentarioak egiten ditu.</p>

Iturria: Egilea bera.

15. koadroa. Edukien ebaluazio-errubrika

Ikasgaia	MULTZOA	EBALUAZIO-IRIZPIDEAK	BIKAIN Lortzen du	OSO ONGI Ez gutziz	NAHIKO Zailtasunez	GUTXI Ez du lortzen
Biologia eta Geologia	Nutrizioa, pertsonak, osasuna.	<p>B4.5 Elikadura orekatu baten garrantzia justifikatzea (CT).</p> <p>B3.8 Ohitura eta bizi-estilo osasungarriak izatearen garrantzia balioestea... (EU).</p> <p>B2.6 Elikadura-ohitura pertsonalak eta kulturalak. Elikadura-ohitura osasungarrien garrantzia justifikatzea (CV).</p> <p>B4.13 Elikadura on batek eta ariketa fisikoak osasunean duen garrantzia argudiatzea (IB).</p>	<p>Elikagai garrantzitsuena osaera eta funtzioa identifikatzen eta azaltzen ditu. Dieta eta bizi-estilo osasungarriak identifikatzen ditu eta ohitura osasungaitzatik bereizten ditu.</p> <p>Osasuna kaltetzen duten gizarte-praktika jakinak ezagutzen ditu eta badaki horiek nola saihestu.</p>	<p>Elikagai garrantzitsuenetako batzuen osaera eta funtzioa identifikatzen eta alpatzen ditu.</p> <p>Dieta eta bizi-estilo osasungarriak identifikatzen ditu eta ohitura osasungaitzatik bereizten ditu.</p>	<p>Elikagai garrantzitsuena osaera eta funtzioa alpatzeko zailtasunak ditu.</p> <p>Dieta eta bizi-estilo osasungarriak identifikatzeko eta ohitura osasungaitzatik bereizteko zailtasunak ditu.</p>	<p>Ez ditu elikagai garrantzitsuena osaera eta funtzioa ezagutzen. Ez ditu dieta eta bizi-estilo osasungarriak eta osasungaitzak bereizten.</p>

CT: Catalunya

EU: Euskadi

CV: Comunitat Valenciana

IB: Illes Balears

Ikasgaia	MULTZOA	EBALUAZIO-IRIZPIDEAK	BIKAIN Lortzen du	OSO ONGI Ez guztiz	NAHIKO Zailtasunez	GUTXI Ez du lortzen
Gaztelania eta Literatura	Ahozko komunikazioa. Entzutea eta hitz egitea.	B3. 10 eta 11 Jendaurrean hitz egitea. Eztabaidetan parte hartzea (CT). B1.1 Hainbat eremuko (pertsonala, akademikoa/ eskolakoa eta soziala) ahozko testuak ulertzea (IB).	Jendaurrean hitz egiteko gogoia adierazten du beti eta oso modu egokian adierazten ditu ideiak. Komunikatu nahi duen mezua primeran egituratzen du. Genero-ikuspegidun elikadura burujabetzaren garrantzia justifikatzeko argudio sendoak emateko gai da.	Gehienetan, jendaurrean hitz egiteko gogoia adierazten du eta, orokorrean, modu egokian adierazten ditu ideiak. Komunikatu nahi duen mezua egituratzen du. Genero-ikuspegidun elikadura burujabetzaren garrantzia justifikatzeko zenbait argudio emateko gai da.	Batzuetan, jendaurrean hitz egiten du baina adierazteko modua hobe daiteke. Laguntzaz, komunikatu nahi duen mezua egituratzen du. Genero-ikuspegidun elikadura burujabetzaren alternatiba bezala proposatzen du baina ez du horren aldeko argudio sendorik ematen.	Ia ez du jendaurrean hitz egiten eta ideiak modu egokian adierazteko zailtasunak ditu. Mezua ez dago egituratuta eta ez da genero-ikuspegidun elikadura burujabetzaren ikuspegia azaltzeko gai.
Idatzizko komunikazioa. Irakurtzea eta idaztea.	B2.5 Lan-proiektu indibidualak edo kolektiboak, fase desberdinei jarraituz amaierako produktu bat lortzeko (CV). B3.3 Azalpen- eta argudio-testu eraginkorrak egitea, argiak eta egituratuak. (EU).	POI lan-prozesuan gogoz parte hartu du, fase guztiei jarraituz, bere gaitasunak taldekidetara partekatuz eta elikaduraren arazoaren azterketari izaera kritikoa emanez. Hortik sortutako ikus-entzunezkoak proposatzen dituzte.	POI lan-prozesuan parte hartu du, fase gehienei jarraituz eta bere gaitasunak taldekidetara partekatuz. Hortik sortutako ikus-entzunezkoak argiak izan dira eta alternatibak proposatzen dituzte.	POI lan-prozesuan parte hartzeko laguntza behar izan du, fase gutxi batzuei jarraituz. Hortik sortutako ikus-entzunezkoak soliak izan dira eta eta dira oso sormenezkoak izan.	Ia ez du parte hartu POI lan-prozesuan. Hortik sortutako ikus-entzunezkoak kalitate baxukoak eta nahaspilatsuak izan dira.	

Ikasgaia	MULTZOA	EBALUAZIO-IRIZPIDEAK	BIKAIN Lortzen du	OSO ONGI Ez guztiz	NAHIKO Zailtasunez	GUTXI Ez du lortzen
Corputz-Hezkuntza	Egoera fisikoa eta osasuna	<p>B1.1 Ekintza motorreko faktoreak eta jarduera fisikoaren kontrol-mekanismoak aintzat hartzea eta osasunarekin erlazionatzea (IB).</p> <p>B1.4 Jarrera eta bizimodu osasuntsuen eta gorputz-irudiaren eta gaixotasunen prebentzioaren arteko lotura (CV).</p> <p>B1.5 Elikadura orekatuaren eta jarduera fisikoaren arabera, beharrezko egokitzapenen garrantzia onartzea (CT).</p> <p>B.2.5 Elikadura orekatuak osasunerako duen garrantziaz hausnartzea. (EU).</p>	<p>Bizi-estilo osasungarria izateko, jarduera fisiko egokia eta elikadura osasungarria konbinatzearen garrantzia identifikatzeko gai da. Modu kritikoa eta genero-ikuspegia erabiliz, gorputz osasuntsua eta publikitateak -merkatu-logika patriarkal batean oinarrituz- eskaintzen duen edertasun/osasun ideia bereizteko gai da.</p>	<p>Jarduera fisikoaren eta elikadura osasungarriaren garrantzia ulertzeko gai da. Tokiko elikagaien kontsumoa bere eguneroko ohituren artean txertatzen du.</p> <p>Publizitateak gorputz-irudian duen eragina identifikatzen du eta kritikoa da ohiko edertasun-kanonekin.</p>	<p>Batzuetan bakarrik lotzen ditu jarduera fisikoa eta elikadura osasungarria.</p> <p>Publizitateak gorputz-irudian duen eragina identifikatzen du.</p>	<p>Ez du erlazio sendorik ikusten jarduera fisikoaren eta elikadura osasungarriaren artean. Ez da kritikoa gorputzen publikitatearekin, ezta saltzen diren edertasun-kanonekin ere.</p>

Ikasgaia	MULTZOA	EBALUAZIO-IRIZPIDEAK	BIKAIN Lortzen du	OSO ONGI Ez guztiz	NAHIKO Zailtasunez	GUTXI Ez du lortzen
<p>Geografia eta Historia</p>	<p>Jarduera ekonomikoa eta antolaketa politikoa. Giza espazioa.</p>	<p>B2.1 Baliabideen banaketaren desorekak, kausak eta ondorioak, eta garapen iraunkorra laguntzeko neurriak aztertzea (CT).</p> <p>B3.6 Politiken egokitasuna → gatazkak, jarrera kritikoa → giza eskubideen eta garapen iraunkorren proposamenak (CV).</p> <p>B2.3 Nekazaritzaren ezaugarriak eta arazoak identifikatzea (EU).</p> <p>B1.3 Ingurumen arazoak ezagutzeko eta aztertzea (IB).</p>	<p>Egokitasunez eta iniziatibaz, hainbat iturri erabiltzen ditu indarrean dauden elikadura-ereduen ezaugarri nagusiak eta horien arteko loturak identifikatzeko; elementuen (energetikoak, teknologikoak, finantziarioak, ingurumenekoak, osasunekoak, gizarte-mailakoak) arteko hairremana primeran ulertzen du eta horiek gizarrean, ekonomian, politikan, ingurumenean eta kulturaren dituzten ondorioak egokitasunez azaltzen ditu. Berezko iritzia du, nahiko arrazoituak, eta eredu desberdinak abantailak eta desabantailak asertibotasunez eta egokitasunez kontzeptualez eztabaidatzeko gai da.</p>	<p>Iniziatibaz, hainbat iturri erabiltzen ditu indarrean dauden elikadura-ereduen ezaugarri nagusiak eta horien arteko loturak identifikatzeko; horiek gizarrean, ekonomian, politikan, ingurumenean eta kulturaren dituzten ondorioak azaltzen egokitasunez azaltzen ditu. Berezko iritzia du, nahiko arrazoituak, eta eredu desberdinak abantailak eta desabantailak asertibotasunez eta egokitasunez kontzeptualez eztabaidatzeko gai da.</p>	<p>Laguntza iturri erabiltzen ditu indarrean dauden elikadura-ereduen ezaugarri nagusiak eta horien arteko loturak identifikatzeko horiek gizarrean, ekonomian, politikan, ingurumenean eta ondorioak aztertzen ditu. Berezko iritzia du, ez oso arrazoituak, eta eredu desberdinak abantailak eta desabantailak asertibotasunez eta egokitasunez kontzeptualez eztabaidatzeko gai da.</p>	<p>Laguntza duen arren, modu okerrean erabiltzen ditu iturri desberdinak indarrean dauden elikadura-ereduen ezaugarri nagusiak eta horien arteko loturak identifikatzeko eta horiek gizarrean, ekonomian, politikan, ingurumenean eta ondorioak aztertzen dituzten ondorioak aztertzen ditu. Berezko iritzia du, ez oso okerrean aztertzen ditu. Arrazoitu gabeko iritzia du eta, hortaz, ez da eredu desberdinak abantailak eta desabantailak argudiatzeko gai.</p>

Iturria: Egilea bera.

16. koadroa. Ikasleek ebaluatzen dute

IRAKASKUNTZA-IKASKETA PROZESUA	AUTOEBALUAZIOA
<p>Irakasleen jokabideari buruz</p> <ul style="list-style-type: none"> ▶ Irakasleak argi azaldu du lan-proposamena, sortu diren zalantzak argitu ditu eta gelako erritmoetara moldatu da. ▶ Irakasleak sortu duen ikasketa-giroak interakzio sozial positiboa, talde-lanean gogoz parte hartzea eta ikasteko motibazioa sustatu ditu. ▶ Irakasleak bilaketa aktiboa, lankidetzeta, eta elkar-laguntzan oinarritutako interakzioa sustatu du gelan. ▶ Irakasleak hainbat ikasketa-estrategia eskaini du pentsamendu kritikoa garatzen laguntzeko eta ikerketa-prozesuak errazteko. 	<p>Banakakoa</p> <ul style="list-style-type: none"> ▶ Elikaduraren problematikari buruzko lan-proposamenarekin motibatuta sentitu naiz. ▶ Talde-lanari esker elkarrekin lan egiten ikasi dudala uste dut eta pertsona arteko eta gizarte-harremanetarako gaitasun erabilgarriak eskuratu ditudala. ▶ Gaia lantzeko erabili dugun genero-ikuspegiak estereotipoak edo jarrera sexista eta diskriminatzaileak gainditzin lagundu dit. ▶ Nagusi diren elikadura ereduak eta elikadura-eredu alternatiboei buruz gauza berriak ikasi ditut. ▶ Genero-ikuspegiak emakumeen ekarpenak, ezagutzak eta jakintzak eta beren eskubideak eta elikadura burujabetzaren aldeko proposamenak bistaritzen lagundu dit. ▶ Lan kolektiboetan izan dudana ahalegin pertsonal, erantzukizun- eta lankidetzeta-maila. ▶ Amaierako produktuarekiko (ikus-entzunezkoak) gogobetetze maila. ▶ Nire kontsumo-ohiturak hobetzeko konpromiso zehatz eta errealistak hartzeko gai naiz.
<p>Proiektuetan Oinarritutako Ikaskuntza (POI metodologiak buruz.)</p> <ul style="list-style-type: none"> ▶ Lan-plana argia eta erakargarria izan da. ▶ Elikaduraren problematikari buruzko edukiak iradokitzaileak eta erakargarriak izan dira. ▶ POI metodologiak alderdi berriak ezagutzeko aukera eman du eta diziplinarteko ikasketa erraztu du. ▶ Metodologiak parte hartze aktiborako eta eztabaida kolektiborako aukera gehiago eskaini ditu. ▶ Talde-lanak ikerketa-proiektua aberastu du. ▶ Taldekideen arteko interakzioak prozesuan sortutako zailtasunak gainditzeko aukera eman du. ▶ Ikus-entzunezkoak egokiak izan dira ikaspenak komunikatzeko. 	<p>Talde-lana</p> <ul style="list-style-type: none"> ▶ Taldeko kide guztiek beren gaitasunen arabera ekarpena egin dute. ▶ Taldea ondo antolatu da elkarlanaren errendimendu altuenak lortzeko. ▶ Gainontzeko taldeekiko eta gela osoarekiko interakzioak oso positiboak izan dira. ▶ Taldeak lan-prozesuan sortutako zailtasunak gainditzeko gaitasuna izan du, batez ere generoko joera duten horiek. ▶ Kontsumo alternatiboko proposamen kolektiboak elkarrekin proposatzeko/sortzeko gai izan gara.

Iturria: Egilea bera.

BALIABIDEAK

Janaria kultura da. Slow Food International.

https://www.youtube.com/watch?v=Mr4Zo1jW_7k



Bide berriak. Elikadura burujabetza. Euskal Herria

<https://vimeo.com/87773811>



Elkarrekin planeta hoztu dezakegu – Elikadura Burujabetza. Via campesina eta Grain.

<https://www.youtube.com/watch?v=ZlAccOmFdiQ>



Gauzen historia.
Workgroup for sustainable production and consumption.

<https://www.youtube.com/watch?v=9GorqroiqqM>




Irtenbideen historia.
The Story of Stuff Project.

<https://www.youtube.com/watch?v=cpkRvc-sOKk>



Ingurumen-justizia mapa

<http://ejatlas.org/>



Azterna ekologikoa neurtzeko. Country Overshoot Days.

<https://www.footprintnetwork.org/>




Sombra sariak. Ecologistas de acción.

<https://www.ecologistasenaccion.org/article34513.html>



Lan-banaketa: ardurakidetzaz. De la Peña, Eva María.

<http://www.educarenigualdad.org/documento/?id=1229>



Lanak: enplegua, zaintzak eta lanaren banaketa sexuala. FUHEM.

http://www.fuhem.es/proyecto_igualdad/pdf/cap_3.pdf



Bideoa: Master Choff osasungarria

<https://youtu.be/YQF7e-LzTT4>



Unitate didaktikoa: Nork ematen digu jaten? Gure osasuna eta planetarena multinazionalen eskuetan. Justicia alimentaria.

<https://www.alimentacion.net/sites/default/files/DAME%20VENENO-SECUNDARIA-PDF-INTERACTIVO-EUSKERA-CAMBIOS%202018.pdf>



***Nork emanten digu jaten?
Disziplinaren arteko proiektua
"Master choff osasungarria".
Justicia alimentaria.***

https://www.alimentacion.net/sites/default/files/MASTER-CHOFF-SECUNDARIA-EUSK-PDF-INTERACTIVO_0.pdf



***Erakuslehiok gara.
Norberaren erabakietan
publizitatearen eragina
murrizteko giltzak. Justicia
alimentaria.***

https://www.alimentacion.net/sites/default/files/PUBLIZITATEA-UNITATE%20DIDAKTIKOA_0.pdf



***SUGAR: gozo bat oso
mingotsa***

<https://alimentacion.net/es/recursos/sugar-gozo-bat-oso-mingotsa>



BIBLIOGRAFIA

- ▶ Álvarez Rivera, Beatriz (2012): *Porfolio docente*. Valentzia, Trilema educación. Hemen: <http://www.ceice.gva.es/documents/162784507/163142369/Porfolio.pdf>
- ▶ Bahamonde Cobo, Rafael Arturo (2017): *De la agroindustria a la agroecología: una reflexión para el caso ecuatoriano*. Hemen: <http://repositorio.puce.edu.ec/handle/22000/14234>
- ▶ Egea, Alex; Barbeito, Cécile et al. (2012): *Competencias y EpD. La educación para el desarrollo en el curriculum escolar desde la perspectiva de las competencias básicas*. Barcelona, Edualter/Escola de Pau. Hemen: <http://edualter.org/documents/competencies/mec/mec.pdf>
- ▶ Gallar, David y Ángel Calle (2017): "La construcción de sujetos políticos y la agroecología: una lucha por la vida". *Dossier Agroecología, un paso más hacia la sostenibilidad de la vida* en Boletín Ecos, 39. zkia. FUHEM Ecosocial. pp. 16-22. Hemen: <http://www.fuhem.es/ecosocial/articulos.aspx?v=10241&n=0>
- ▶ De Sousa Santos, Boaventura (2011): "Epistemologías del Sur" en *Utopía y Praxis Latinoamericana*, 16. libk. 54. zkia., uztaila-iraila. 17-39. orr. Universidad del Zulia, Maracaibo, Venezuela. Hemen: <http://www.redalyc.org/service/redalyc/downloadPdf/279/27920007003/1>

TXIROAK OBESOAK DIRA

Javier Mato (2018ko uztailaren 14a - 16:16)

U rtero, elikagaien zenbait multinazionalen exekutiboak, dozena erdi inguru, nazioarteko inbertitzaile agresiboen aurrean aurkezten dira beren emaitza ekonomikoak azaltzeko. Burtsa-analistek, diruaren jabeak ordezkatzeko dituztelarik, emaitzak kontu handiz aztertzen dituzte baina ez dute inoiz desengainua hartzen; izan ere, enpresa horien kudeatzaileek negozio-bolumenaren eta irabazien hazkuntza sistematikoa aurkezten dute; gero eta herrialde gehiago hedatzen direla egiaztatzen dute; gero eta tokiko marka gehiago erosten dituzte, betiko horiek; eta mundu mailan duten presentzia sendotzen dute, inork ere horiei eusteko gauza ez delarik. Exekutiboen emaitza horiek saritzen dituzten urteko bonusak zintzo eta gustura ordaintzen zaizkie, negozioa primeran baitoa azken hamarkadetan. Enpresa horien finantza-zuzendariak power point sofistikuak erabiltzen dituzte honako hauek erakusteko: ROla nola hazten den, salmentak nola hazten diren, markak nola finkatzen diren eta, jakina, nola saritzen dituzten merkatuek balore horiek beren kotizazioak handituz. Izan ere, elikagaien multinazionalen kudeaketa, bilakaera eta emaitzak gorako gezi multzo baten bitartez laburbiltzen dira.

Oraindik ere, gogoan daukagu nola enpresa horietako batek Balearretara bidali zituen beren zuzendariak eta, 22.000 miloi pezetako eramaile-txeke baten bitartez, Menorcako El Caserío marka eta fabrika ospetsua erosi zuen. Abeltzainak, eskulanak, langileen ezagutzak eta gaztaren zapore berezi horrek hain garrantzi gutxi zuten non laster multinazionala bertatik joan zen, benetan merezi zitzaien logoa eta izena berarekin eramanez. Hangoa, ordea, Ruiz Mateos xelebrearen eskuetan abandonatuta utzi zuten. Egia esan, El Caserío garrantzirik gabeko oztopo bat zen xerretako gaztaren Espainako merkatu osoa bere menpe izateko; horixe baitzen, hain zuzen ere, enpresaren zuzendaritzak asmatutako estrategia. Negozio-eredu hutsezina duzunean, arrakasta bermatuta dagoenean, merkatari batek ere ez amestutako hori lortzeko prest zaudenean, orduan negozioak egitea oso erraza da.

Hala ere, ikuspegi etiko batetik, elikagaien negozioak iruzur handia dira. Ez dago zigor-kodean tipifikatuta, baina lotsagarria da beste edozein ikuspegitik. Ez, multinazional horiek ez dituzte iraungitako produktuak saltzen, ez dute ekilore-olioa oliba-olioa izango balitz bezala saltzen, eta ez gaituzte osagaiekin engainatzen baina, hala ere, trikimailuak erabiltzen dituzte. Dena da gardena, baina iruzurtia. Zientifikoki diseinatutako iruzurra, agintariek eta hedabideek hori izorra ez dezaten.

Azken hamarkadetan, enpresa horiek janari-adikzioa sortzen ikasi dute; izan ere, laborategian garatutako zenbati osagai erabiliz kontsumitzaileak beren menpe jartzen dituzte. I+G famatuaz ari gara, baina dastamenari aplikatuta, emaitzen kontuari. Kasu batean, publizitateak berak estrategia hori argitzen du: "once you pop you can't stop" (pop egindakoa ezin zara gelditu) onartzen du patata-iragarki batek. Izan ere, kimikak hori ahalbidetzen du. Normalean, azukre dosi altuak eta karbohidrato oso kontzentratuak erabiltzen dituzte, askotan artotik ateratzen dituztenak. Azken horiek azukrearen absortzioa errazten dute berehalako asebetetzea eskainiz. Osagai kimiko horietako bat, glukosa jarabea hain zuzen ere, elikagai askotan aurkitzen dugu baina ez naturan. Horrek munduko kaloria-ahorakinaren %12 osatzen du. Ez da ilegala, baina osasungarria ere ez.

Halaber, askotan, osagai kimiko horiek gozagarriekin, koipeekin, gatzarekin, zapore-indartzaileekin edo kafeinarekin nahasten dituzte eta ia produktu industrial guztietan aurkitzen ditugu: pizzetan zein izozkietan, gailletetan zein gosaltzeko zerealetan, freskagarrietan zein patata frijituetan. Txokolatezko izozki batek, adibidez, karbohidrato horiez gain, irin finduak, gatza, olioak, kakaoa, zapore-indartzaileak eta kontserbatzaileak ditu. 37 osagai ere izan ditzake, oso gozagarria den emaitza bat emanez. Horren aurrean, Fet a Söller-ek aukera gutxi ditu.

Azken bi hamarkadetan, zenbait ikertzaile independentek egoera hori ezagutzera ematen saiatu dira, batez ere horrek osasunean dituen ondorioak ikusita. Ondorioak espero daitezkeenak dira, elikagai horietako batzuek, espero ez ditugun horiek ere, kaloria-ahorakina hamarrez biderkatzen baitituzte. «Janariaren eremua erabat aldatu da [azken urteetan] mendekotasun-sortzaileak diren janariak agertzearekin batera -azaltzen du artikulu akademikoetako batek-. Industria aurreko garaian, gizakiek prozesatu gabeko dieta bat zuten, proteina, ale eta eduki askokoa eta gatz gutxikoa. (...) Industrializazioarekin eta aurrerapen teknologikoarekin, kaloria ugariko dieta batera igaro ginen; koipe, azukre, gatz, kafeina eta zapore-indartzaile artifizial ugariduna». Pizza industrial zati batek laranja batek baino 20 bider kaloria gehiago izan ditzake. Akademiko askok elikaduraren manipulazio horren efektua drogekin lotzen dute; izan ere, helburua adikzioa sortzea da, fidelizatuz eta kontsumoa handituz.

Inork ez ditu trikimailu horiek ezagutzen baina kontsumitzaile gutxi batzuei senak honako hau esaten die: produktu industrialak ez direla osasuntsuak. Gizartearen beste zati batek ez du hori ere susmatzen, baina betiko moduan jatea nahiago du. Aitzitik, industriak gero eta herritar gehiago bereganatzen ditu. Esate baterako, AEBko biztanleen %35 obesoa da; Espainian %17 da, dagoeneko, eta %50k gehiegizko pisua du. Espainian, 1970az geroztik, obesitatea hirukoiztu da, elikaduraren negozioren merkantilizazioarekin batera. Hona hemen kontraesana: duela ehun urte, argaltasuna pobreen

ezaugarria zen; gaur, ordea, guztiz kontrakoa da, pobreak obeso daude ez dutelako ondo jateko prestakuntzarik eta, ondorioz, janari lasterrera jotzen dutelako.

Multinazional handiek legeek uzten dituzten hutsuneak betetzen dituzten bitartean, gure politikoak ez dira enteratu ere egin, besteak beste, ez daudelako esplotazioarekin kezkatuta. Kapitalismo basatiak hau erakusten digu: Adorno pesimistak arrazoia zuen. Konponbidea behar duten arazo asko ditugu baina, zoritxarrez, politikoek konponbide asko dituzte eta arazoen bila dabilta. Tabakoarekin gertatutakoa elikadurarekin gertatzen ari da, baina modu larriago batean; baina hori ez da politikoki zuzena eta, hortaz, guztiek ez ikusia egiten diote.

Javier Mato kazetaria eta CESAGeko irakaslea da.
El Mundo, A contracorriente.

<http://www.elmundo.es/baleares/2018/07/14/5b4a0591e2704e2f338b45c4.html>

ELIKADURA TRADIZIONALETIK NEKAZARITZA-INDUSTRIARA IGAROTZEA

Urratsik garrantzitsuena laboreen eta abereen banaketa izan zen; izan ere, horrela, korporazioek taldeen arteko funtzio gehigarriak (batez ere, lurrak lantzea, abereentzako bazka eta animalia-jatorriko ongarri naturalak) ordezkatuko zituzten input industrialak eskaini ahal izango zituzten. Hala, korporazio handiak sortu ziren, honako hauek saltzen zituztenak: erregai fosilen kontsumoan oinarritutako nekazaritzamakinak, ongarri kimikoak eta arto era soja irinez egindako pentsuak. Beste alde batetik, abeltzaintza intentsiboko operazioek, bada, nekazaritza-ustategiak giza-kontsumorako elikagaiak ekoiztetik animalientzako pentsuak ekoiztera pasatzera animatu zituzten, batez ere soja eta artoa [...]

Zentzu horretan, monolaborantza berriak izugarri ahulak ziren izurriteen aurrean (intsektuak, gaixotasunak, onddoak, belar txarrak) eta horiek pestizida artifizialetera egokitzen ziren neurrian, gero eta pestizida-kopuru handiagoak erabili behar zituzten. Denboraz, teknologia genetikoen aplikazio nagusiek bazkarako labore horiek gero eta glifosato (herbizida) gehiago toleratzeko ahalmena izatea izango zuten helburu [...]

Zentzu horretan ere, azpimarratzekoa da nekazaritza-industriaren sorrera jabetza pribatuaren ekonomia-sistema kapitalistaren berezko logikari lotutako gertakari bat dela [...]

Beraz, faktore eta indar horiek bat egitearen ondorioz, elikagaien, zuntzen, hazien, produktu kimikoen eta substratu farmazeutikoen ekoizpenean, eraldaketan eta merkaturatzean zuzenean zein zeharka sartutako sektore "kate" bat sortu zen. Kate horri, bada, nekazaritza-industria deitu ohi zaio (Agrifood.info, 2017). Hala, nekazaritza-industriaren "kate-mailak" honako sektore hauek hartzen dituzte:

- ▶ Hainbat commodityren ekoizpena: elikagai ez eraldatuak, akuikultura, zuntza eta substratu kimikoak.
- ▶ Commodityak produktu landu bihurtzen dituen eraldaketa tertziarioa.
- ▶ Lehen eta hirugarren sektoreetako inputen ekoizpena.
- ▶ Txikizkako eta handizkako merkaturatzea -lehengaiena zein elikagai prozesatuena, zuntzarena eta beste hainbat produkturena-, kontsumitzaileei.
- ▶ Gaikuntza, finantza, ikerketa eta aholkularitza tekniko zerbitzuak ematea kate-maila guztiei".

Iturria: Bahamonde Cobo, Rafael Arturo (2017:29-32).

<http://repositorio.puce.edu.ec/handle/22000/14234>

Alimentación VSF-Justicia Alimentariaren eta Hegoa institutuaren hezkuntza proposamen bat da. Horren bitartez, Elikadura Burujabetzaren printzipioetan oinarritutako elikadura eredu alternatibo bat sustatu nahi dugu. Hala, ikastetxea elikadura onarekin eta bizitzaren iraunkortasunarekin konprometitutako instituzio bat bihurtzen da.

Alimentaciónetik irakasleak eta ikasleak laguntzen ditugu, hauen bitartez: prestakuntzak, tailerrak, baliabide didaktikoak, etab. Baliabide horiek erabiliz, hezkuntza komunitatea gure elikadura ereduak gizartean, ekonomian eta ingurumenean dituen ondorioen (ekoizpena, banaketa, merkaturatzea eta kontsumoa) inguruan kontzientziatu nahi ditugu. Gizarte-hezkuntza ekimen horrek elikaduraren gaia ikuspegi global batetik lantzen du, genero eta iraunkortasun ikuspegietan oinarrituz. **Alimentación** programak Nazioarteko Lankidetzarako Espainiako Agentziaren (AECID) laguntza du.

